



Lazkaoko festak: hasi da denboraldia



**Goierriko
Unibertsitatearen
inaugurazioa**

**Aralarko larreen
irekiera
Larraitzen**

**Gazta Eguna
Idiazabalen**

**Josu Sarriegi
Alaveseko
jokalaria**



zure etsairik gaiztoena izango da



amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK

SWISSFLEX
GOIERRIKO BANATZAILE OFIZIAL BAKARRA

NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 - BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51

zuretzat prestatu ditugun modelo berriak ezagutzen dituzunean



Teilatuen egiturak
Portxeak
Aleroak
Balkoiak
Eskailerak
eta abar



Zoruak eta egurrezko egiturak
Merkatuko aukera osoa
Egin eta jarri egiten ditugu



Gurutze errepidea

ARRONDO GABIRIA

☎ 943 88 59 50 - 943 88 59 54

AENOR
R
Empresa
Registrada
ERI452/2/00



IDIAZABALEN ETXE ADOSATUAK



- 3 logela.
- Lorategia 66/99 m².
- Kalitate goreneko materialak.
Adarra kalitatea.
- 2 kotxerentzat garaje itxia.
- Solarium, terraza.
- Irakaskuntza zentrua, Polikiroldegia,... inguruan.

ETXEEN ENTREGA DATA: 2001.urteko 4.hiruhilekoan

686 414 901 - 943 450 721



INMOBILIARIA

adarra

ZURE NEURRIRA ERAIKITZEN DUEN INMOBILIARIA
LA INMOBILIARIA QUE CONSTRUYE A SU MEDIDA

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMENDI:

Maiatzak 1,
Aralarko larreak
irekitzeko festa.

4-5: BERRIAK LABUR

6: KILOMETROAK 2001

7: KATE MTZEAN: Jon
Urdangarin.

8-9: Goierri Goi Maila
Eskola

10-11: Lazkaoko jaiak.

12-13: Alarpe zalditegia.

14: Lazkaoko Arramendi
baserria.

16-17: Idiazabalen Gazta
eguna, maiatzaren
6an.

18-31 KRONIKAK

ORMAIZTEGI,
ZALDIBIA, SEGURA,
ATAUN, ZERAIN,
ITSASONDO, GABIRIA,
ZEGAMA, ORDIZIA, LAZKAO,
IDIAZABAL, BEASAIN.

33: AGENDA

34-35: DEBALDEKO IRAGARKIAK

36-37: KIROLA: Josu
Sarriegi.

38: FOTO ZAHARRA:
lazkaotarrak

ARALARKO EGUNA 2001

MAIATZAK 1 - LARRAITZEN



Maiatzaren 1ean, Larraitzen

Aralarko larreak irekitzeko festa

Aralarko Eguna ospatuko da maiatzaren 1ean, Larraitzen. Negua beheran pasatuta, ganadua mendira igotzeko festa izaten da. Trashumantzia deitzen zaio, ganadua mendira igotzeari. Enirio Alarko mankomunitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro Sailaren laguntzaz antolatutako festa, bete-betea izango da. Jarraian duzue egitaraua:

Goiz guztiko festa

Goizeko 10etatik aurrera, Sarako gaiteroak eta dantzariak izango dira. 11:00etan, Xiberuko Daniel Xalbador eta Gerard Ihidoi kantarien emanaldia izango da. Tarteetan, Jon Gere pultsulari ermuarraren erakustaldia izango da. Eguerdian, 12ak aldera, Aralarko larreak ofizialki irekitzeko etxafuegoa botako da. Ondoren, Jose Inazio Begiristain eta Bixente Gorostidi bertso-larien jarduna izango da. Juanito Mendizabal txiste kontalaria, Xiberu-

ko kantarien emanaldia eta Sarako gaitero eta dantzarien emanaldi izango da.

Erakusketak eta salmenta

Goizean zehar, abereen feria, esku-langintzako erakustaldiak eta bertako produktuen salmenta izango dira.

Batetik, ardiak, behiak, pottokak, astoak, ahariak izango dira ikusgai. Aralarko ganadua erakutsiko da. Behor markaketa eta ardi mozketak ikusteko aukera ere izango da.

Saskigileak, artile eta gaztagileak, pilotagileak eta ohiko tresnen erakusketak izango dira. Azkenik, Aralarko artzainen gazta, taloa eta txorizoa, sagardoa, orein produktuak, sendableararak, Aralarko liburua eta mapak... dastatu eta erosteko aukera izango da Larraitzen.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitateak: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Nagore Etxeberria, Aitziber Murua eta Guillermo Urrestarazu.

Azaleko argazkia: Dioni Santoyo

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria

Apirilak 10, greba orokorra


Ezker Abertzaleak apirilaren 10erako egindako greba orokorrak erantzun ezberdina izan zuen gure eskualdean. Batez ere, merkataritxikietan izan zuen eraginik handiena. Enpresa nagusiek ez zuten grebarik egin.

Belen Gonzalez

Frantzian preso dagoen Belen Gonzalez lazkaotarrari 6 urteko kartzela zigorra jarri diote, gaizkile taldeko kide izateagatik.

Goierriko ikasleen eskakizunak Ibarretxeri

Apirilaren 18an Goierriko Goi Maila Eskolaren inaugurazio ekitaldira Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria etortzekoa zela eta, Goierri Lanbide Eskolako Kontseilu Eskolarreko ikasleen ordezkari batek, esku-titz bat eman zion. Euskal Hezkuntza sistema nazionalaren aldeko aldarrikape-na egiten zen bertan, "gure izatearen jatorria nondik norakoa den jakiteaz gain, herri honekiko errespetuan eta justizia sozialean oinarrituko den Euskal Hezkuntza Sistema Nazionala". Aldi berean, Ikaslanen ikasleek dituzten "baldintza ezin kaxkarragoak" salatu zituzten. "Badi-tuk urte batzu bertako ikasleok inongo kontraturik gabe, inongo aseguru pertsonalik gabe lanean ari gaituana. Ikaslanen helburua ez da inoiz hezitzailea izango giza balore guztien gainetik produkzioak agintzen duen bitartean. Eta horrekin batera galderatxo bat: *hi biziko al hintzateko 598 pezeta orduko lan sariarekin?*"



Sasieta Mankomunitatearen ekimenez

Betaurreko zaharren bilketa arrakastatsua

Goierriko optikek jasotzen dituzten erabilitako betaurrekoei bigarren erabilpen bat eman eta bi-de batez garatzen ari diren herrialdeetara bidaltzea izan da Sasieta Mankomunitatearen helburua. Goierriko optika guztien babesa izan du Sasieta Mankomunitatearen ekimenak. Martxoko lehenengo astean egin zen lehenengo bilketa eta oso emaitza onak lortu dituzte: 75 kilo betaurreko eta lente jaso dira, hau da, 2.000 betaurreko eta lente.

Bi proiektuetara bideratu dira betuarrekoak. Material gehienak Medicus Mundik Tanzanian duen proiektu batera bidali dira. Oftamologia mailan oinarrituko azterketak egin dira eta Osasun Agenteen sarea ere sortzen saiatzen ari dira. Lazkaon bildutako betaurrekoak Ruandara bidaliko dira dira, Leonardo Esnaola lazkaotarrak zuzentzen dituen proiektuetarako.

Udazken aldera bigarren bilketa egingo da. Beraz, Sasieta Mankomunitateak, betaurreko zaharrak Goierriko optiketan uzteko deia egiten du.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

URBITARTE

tolare
sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

Gipuzkoako bertsolari txapelketa aurrera

Ekaitz Goikoetxea eta Aitor Sarriegi beasaindarrak eta Joxe Munduate ataundarrak aurrera darraite Gipuzkoako bertsolari txapelketan. Ekaitz Goikoetxea Elgoibarren aritu zen apirilaren 20an eta 4. egin zuen; 337 puntu lortu zituen. Hurrengo kanporaketa Irunen izango du maiatzaren 12an. Aitor Sarriegi, gaur, Villabonan, arituko da eta maiatzaren 18an, Ordizian. Joxe Munduatek, azkenik, bihar, apirilak 28, izango du lehenengo saioa eta bigarrena, maiatzaren 19an, Lasarten.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Euskara landu eta hobetzea nahi duten euskara ikasleek aukera izango dute aurten ere, egonaldiak familia euskaldunetan egiteko. Uztailetik irailera bitartean izango dira egonaldiak. Bertan parte hartzeko baldintzak hauek dira: 18tik 45 urtera bitarteko adina izatea; eta HABEK finkaturiko euskalduntze programaziorako 8. urratsa edo baliokidea gaitutua izatea. Ikasleak familiako bizitzan parte hartuko du. Logela pribatua izango du ikasleak. Egonaldia 35.000 pezeta kostatuko zaio ikasleari. Maiatzaren 12an bukatzen da izena emateko epea. Argibideak: telefonoa, 943022621; faxa, 943022601; posta elektronikoa, info@habe.org.

Kirolak

Koke Lasa, Everesta begira

Ormaiztegiko mendizalea Everest mendia igotzeko asmotan dabil. Dagoeneko, oinarritzko kanpamendua egokituta dute. Edurne Pasaban Tolosako mendizalearekin batera joan da Koke Himalayara. Berrien zain gelditzen gara.

Joxe Ramon Agirre 'Marron', Shisha Pangman

Ataungo mendizalea berriz, Shisha Pagma mendia igotzeko helburuarekin joan da Nepal aldera. 8.012 metro ditu mendiak. Igotzea gutxi ez balitz, beste erronka bat ere badu Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek: mendi tontorretik, parapentean jaistea.

Iñaxio Imazen agurra

Pilotari segurarrak erremonte profesionalaren munduari agur esango dio. Larunbat honetan, 37 urterekin, Galarretan jokatu du bere azken partida. Kote to Ezkurrarekin batera binakako txapeldun izatera iritsi zen Imaz.

HORTZ KLINIKA



Silvia Miras Casasayas

Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.

☎ 943 88 92 87 BEASAIN

ARRIETA

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



AUSO EGI

Urdaneta, 41

☎-Faxa: 943 88 95 76

ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



Maiatzaren 3an, 7,30etan Kilometroetako bulegoan Kilometroak 2001 antolatzen laguntzeko batzar irekia

Gero eta gertuago dago urriak 7, Kilometroak 2001 eguna. Gero eta lan gehiago dago eta gero eta jende gehiagoren beharra ere bai. Hori dela eta, Kilometroak jaiaren 25. ekitaldia antolatzen laguntzeko goierritar guztioi deialdi berezia egiten dizue Kilometroak 2001eko antolakuntzak. Batzar irekia, maiatzaren 3an egingo da Beasainen, 7,30etan, Kilometroak 2001ek duen bulegoan (Euskadiko Kutxaren gainean). Ikastolen jai honek, guztion laguntza behar du, kanpotik etorriko diren milaka eta milaka lagunei behar bezalako on-

gi-etorria egin ahal izateko eta behar dituzten zerbitzu guztiak eskaintzeko. Eta azken batean, Ikastolen mugimenduari eta euskarari laguntzeko.

Era askotako lanak dau-de egiteko. Beraz, bakoitzak ahal duen neurrian eta ahal duen lekuan, bere laguntzatxoa ematea, bizi-ki eskertuko luke Kilometroak 2001 antolatzen ari direnak.

Batzarrera joaterik ez baduzu, beheko txartela bete eta Beasaingo Ikastolara, Urbialde 2ra, bidali besterik ez duzu. Antolatzailerak jarriko dira zurekin harremanetan.

Lan-taldeak

- ✕ Kultura
- ✕ Muntaiak
- ✕ Trafikoa
- ✕ Zirkuitua
- ✕ Garbiketa
- ✕ Osasuna
- ✕ Salmentak
- ✕ Komunika-zioa

Izen-abizenak:

.....

Telefonoa:

Lan-taldeak

Urte guztian ☐ 1.-
 2.-
 3.-
 4.-
 Egunean bertan ☐ 5.-
 6.-



02587

ZOKKETA

Mazda Premacy baten ZOKKETA

02587


KILOMETROAK 2001

zokketa urriaren 7an izango da notario aurrean

Diru laguntza: 250 pzta.

Saria hilabeteke epean jaso beharko da.







Badator autoaren zokketa

Mazda Premacy autoa zokketatuko du Kilometroak 2001ek. 250 pezetaren truke autoa zokketatuko duen errifa erosi ahal izango da. Urriaren 7an bertan egingo da autoaren zokketa. Beraz, adi, laister izango dira eta bo-
letoak kalean.

Haur eta gazteen eguna, maiatzaren 12an Beasainen

Beasaingo aisi eta gazte taldeekin, Txilibutxof, Kimuak, Gazte Asanblada eta kale animatzailearekin egindako pare bat bileraren ostean, Kilometroak 2001ekin elkarlanean, haur eta gazteen eguna antolatzea erabaki da. Maiatzaren 12an izango da eta hurrengo alean izango duzue honi buruzko zehaztapen gehiago.

Herri Urrats

Aurten ere maiatzaren 6an, euskaltzale guztiok Senperen dugu zita. Iparraldeko Ikastolei laguntzeko giro paregabea izango da Senpereko aintziraren inguruan. Bertara joateko autobusa antolatu du Beasaingo Ikastolak. Izen ematea, arratsaldeko 4etatik 6etara (943889617) telefonoan egingo da.

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

Jose Ramon Pato Prieto
 Psikologian lizentziatua
 Elkargokide zenbakia: E-2644
 RPS: 42095
 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Goierri Bus

Segurtasun eta kalitatezko zerbitzua

Tel.: 943 72 52 50

Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak

19, 29, 55, 60 eta 82 plazatakoak

Literadunak komunarekin



Festarik onenak nongoak?

Niretzat badira, Lazkaokoak. Drindotsekin musika jotzeko badira, Nafarroakoak edo Zallakoak.

Festak oholta ganean ala azpian?

Aspaldian oholta ganean bakarrik ibiltzen naiz festetan. Baina onena, zalantzarik gabe, azpian edo inguruan gehintzat.

Goierrin dantzarik gutxien egiten den herria?

Denetan ere gero eta gutxiago egiten da.

Eta gehiena?

Gurekin lehen Lazkaon. Tira, dantza denetan egiten da, baina tabernetan, ez plazan.

Non dituzue 'fans' gehien?

Lazkaon, Nafarroako herri batzuetan, Zallan eta Irunen.

Piezarik edo kantarik gustokoena?

Erreperitorioan berria den edozein.

Eta gorrotogarriena?

Askotan jo dugun edozein, 'Lau teilatu' esaterako.

**Talde gustokoena?
(Drindots kenduta)**

Bide Ertzeanen
'Grisa' diskoa
gustatzen zait.
Zuzenean, EH
Sukarra eta nola ez Su
Ta Gar. Beno egia
esan, niri ia dena
gustatzen zait.

**Azkena egindako
parranda, non eta
norekin?**

Iruñean, taldekoekin.

Lazkaoko festetarako plan bat:

Afaldu, plazan ibili eta 'añojo' batzuk edan.
San Prudentzio egunean, koadrilakoekin
txakolin batzuk hartu trikitixa entzunez.

**Zerk ematen du atsegin gehiago, ikasleak
euskaldunduta ikusteak edo ikusleak ondo
pasatzen ikusteak?**

Biak dira atsegingarriak, baina,
euskaldundutako ikasleak askoz ahalegin
handiagoa egin behar du.



Jon Urdangarin
Drindots



**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

**RENAULT
AGENTZIA**

*Festa onak
pasa!*

**MIKEL
OPTIKA**

OPTIKARI
OPTOMETRISTA
DIPLOMADUNA

UKIPEN LENTEEN
EGOKIERA

Elosegi, 48
☎ 943 88 09 35
LAZKAO



ATAUN S. MARTINGO
BARANDIARAN Anaiak

**Atzondo
roztegia, S.L.**

41 Posta Kutxa
Zubierreka, z/g
☎ 94316 09 31 **LAZKAO**

OLARBIDE harategia

festa onak opa dizkizuegu

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
☎ 943 88 17 17

LAZKAO

Elosegi, 15
☎ 943 16 05 16

IKER errekadista

Lazkao - Donostia zerbitzua
Eguneroko eraman-ekarriak

☎ 943 88 29 26
608 - 77 14 11

Gurutze, 3 - 3.A
LAZKAO



Sagardoa txotxetik urte guzian
Sagardo denboralditik kanpo ere irekita
Bataio, jaunartze, lagunarteko otordu, despedida, e. a.

Etxe - Zuri

Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
☎ 943 88 20 49
OLABERRIA

Joxe Mari Ormazabal, Goierri Lanbide Eskolako zuzendaria:

"Goierri Goi Maila Eskola Goierriko gizarteak eskatu eta lagundu du"

Apirilaren 18an inauguratu zuen Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak Goierri Goi mailako Eskola. Goierri eskualdearen beharrei erantzunez, unibertsitate ikasketak Goierri bertan egiteko aukera izango da. Ingeniaritza Tekniko Mekanikoa eskaintzen du Goierri Goi mailako Eskolak, lotura sistemen espezialitatearekin. Mondragon Unibertsitatean barruan egongo da Goierri Goi mailako Eskola. Joxe Mari Ormazabal, Goierri Lanbide Eskolako zuzendariak eman dizkigu xehetasunak.

- Nondik nora sortu da Ingeniaritza Teknikoa Goierri?

- Goierriren Plan Estrategikoan azaltzen zen ikasketen maila igotzearen beharra eta hori gauzatu zitekeela ingeneritza teknikoko ikasketekin. Plan Estrategikoa garatzen joan zen eran asmoa proiektu bihurtu zen eta orain hiru urte hasi ginen serio planteatzen Goierri Lanbide Eskolan, ingeneritza ikaske-



Joxe Mari Ormazabal, Goierri Lanbide Heziketako zuzendaria.

tak eman behar genituela. Mondragon Unibertsitateak ere eginga du bere Plan Estrategikoa, eta bere ikasketak, eskualdeetara hedatzean zetzan oinarrietako bat. Mondragon Unibertsitatearen Plan Estrategikoa bat etorri zen gure asmoekin. Harremanetan hasi ginen serio, eta gai izan gara proiektu hau aurrera ateratzeko. Momentu honetan Goierri bailararentzat ekarriko du bertako jendeak ingeneritza teknikoa bailaran bertan ikasteko aukera. Bertako jendea esaten dugunean, N-1 errepidearen ingurura mugatzen gara. Guretzat erronka oso interesgarria izan da proiektua gauzatea eta eraikina inauguratzeko gauza ere izan gara.

- Beharra ikusi al da?

- Plan Estrategikoa egin zen garaian Goierriko enpresek, udalek eta agente sozialek hartu zuten parte eta horren beharra ikusten zen. Geroztik ere enpresek beti erakutsi izan digute horren beharra. Goierri Lanbide Eskolatik ateratako teknikoek estimazio handia eduki dute eta enpresek eskatzen zuten pauso bat gehiago egiteko. Gero eta tekniko behar handiagoa dago. Goierri mailan soldadura mailako enpresa asko daude eta gabezia ikusten zen. Enpresetatik bultzada handia eman digute. Parte hartu dute eta laguntza handia eman digute. Ez da Goierri Lanbide Eskolako langileon kapritxo bat izan, Goierriko gizarteak

eskatu eta lagundua izan da.

- Bertako ikasleek Goierriko enprekin lotura zuzena izango dute.

- Arrasateko Unibertsitateak badu ezaugarri berezi bat: azkeneko urteko proiektua enpresa batean egiten da, urtebetekoa, eta gainera gai erre- al bati erantzungo dio proiektuak. Ikaslearen inguruko enpresa izaten da. Goierriko enpresetarako proiektuak egiten jende mordoska izango dugu hemendik urte batzutara.

- Zer eskainiko du Goierriko unibertsitateak?

- Mondragon Unibertsitateko espezialitate mekanikoa izango da. Mekanikan oinarri sendoa izango du. 3. urtean espezializazioa emango zaie, lotura sistemetan. Espezialitate hau Goierri emango da. Gainerako espezialitateak Arrasaten egongo dira. Hori bai, proiektua egitera, bakoitza bere ingurura etorriko da. Honela enpresetan proiektuak, edozein espezialitatekoak izango dira, ez lotura sistemoak bakarrik.

- Eskaintza gehitzeko asmorik ba al dago?

- Arrasatekoek eginda daukaten Planaren arabera, Goierri-

aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

943 80 60 66 LEGORRETA

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

943 18 72 57

ko kanpus honen bueltan, etorkizunean, 1.000 ikasle inguru ikusten ditu. Ingeniari-tza mekanikoan espezialitate-ak gehituz joango dira, eta baita beste karrera batzuk ere. Arrasaten dituzten beste ikas-ketak ere hona zabaltzea da asmoa.

- Kanpotik datozen ikasleentzat azpiegiturarik ba al dago?

- Komunikazio aldetik oso ondo gaude Goierriin. Pentsa-tzen dugu gure ikasleetatik askok norbere etxean lo egi-teko aukera izango dutela. Dena den, lotura sistemen es-pezialitatea jarri behar dugu-nez, espezialitate hau egin nahi dutenak etorriko dira kanpotik. Hauen zat etxeak aurkitzen gu geu saiatuko ga-ra.

- Funtzionamendua, Arrasateko-aren berdina izango du, ezta?

- Arrasateko eskolako irakas-leekin funtzionatuko dugu. Arrasateko eta hemengo ira-kasleek, osatuko dute taldea. Han eta hemen emango dituz-te eskolak, beraz irakasle ber-berak izango dituzte. Azter-ketak ere, egun berean egingo dituzte, azterketa berdina izango eta zuzendu ere ira-kasle ber-berek egingo dute. Arrasaten egotea bezala izan-go litzateke, baina Ordizian. Hau garrantzitsua da. Edozer gauza sortzen denean, kalita-tearen garantia nahi izaten baita. Guk irakasleen sistema honekin kalitatea ziurtatzen dugu.

- Zein baldintza beharko ditu be-te ikasleak?

- Arrasateko baldintza berdi-



Otano (Unibertsitateko zuzendaria), Inaxio Oliveri (Hezkuntza sailburua), Alejandra Iturrioz, (Goierriko Herrien Fundazioko lehendakaria), Juan Jose Ibarretxe (EAEko lehendakaria) eta Joxe Ramon Beloki (Ekonomia diputatua) izan ziren inaugurazioan.

400 milioiko inbertsioa

Goierriko Lanbide Eskolaren ondoan egin duten eraikinean izango du egoitza Goierri Goi Maila Eskolak. Goierri, enpre-sentzako zerbitzu teknologikoaren zentrua, ere bertan koka-tzen da. 2.000 m² ditu eraikinak eta 400 milioiko inbertsioa egin da.

2001-2002 ikasturtean hasiko du ibilbidea Goierri Goi Mai-la Eskolak. Ingenieritza Tekniko Mekanikoa eskainiko da ber-tan, soldadura eta lotura sistemetan espezializatua. Mondragon Unibertsitatearekin guztiz uztarturik egongo da.

Piskanaka Goierri Goi Maila Eskolaren eskaintza, gizarte-aren beharretara egokitzen joango da.

nak. Batxilergoa eta selekti-bitatea eskatzen da. Espezia-litatearen arabera eta ikas-le kopuruaren arabera izango da. Selektibitateko nota hartuko da kontuan. Lanbi-de Heziketatik zuzenean sar-tzeko aukera ere izango da. Hori bai, batz besteko nota gutxienez 7 izan behar da.

- Zein esperantza duzue?

- Bi ikasgela osatzeko espe-

rantzarekin gaude, baina ba-karra osatuta ere gustura. Le-henengo urtea izango da eta ikusiko dugu. Gero eta gehia-go izango direla espero dugu, ahoz ahoko publizitateak as-ko laguntzen baitu.

- Dena den, Goierri Lanbide Esko-lak badu izen bat... nolabaiteko garantia da hori.

- Gu 60 bat enpresekin gaude harremanetan. Gure ikasleak

lan praktiketara joaten dira. Momentu honetan enpresak eske etortzen zaizkigu. He-mendik aurrera maila gorago-ko ikasleak eskainiko dizkie-gu enpresei. Hemen eskaini-ko ditugun ikasketak, ingu-ruari eta enpresei begirakoak izango dira. Bukatzen duenak ziurtatua izango du, hilabete-ra lana izango duela.

- Ikasketak euskaraz egiteko au-kerarik izango al da?

- Bai. Talde bat bakarrik sor-tzen bada, euskaraz bakarrik emango da. Bigarren taldea sortzen bada, beharra baldin badago, gaztelera ere eman-go da. Baina euskarazko tal-dea ziurtatua dago. Arrasate-ko Planaren barruan tekniko-ak hirueledunak izatea aurri-kusten da, euskara, gaztelera eta ingelera ondo menpera-tzea. Hirugarren urtean has-ten dira gaztelera eta ingelera gehiago erabiltzen.

- Pribatua da unibetsitatea. La-guntzarik izango al da?

- Laguntza publikorik ez dau-kagu. Unibertsitate publikoa-ren eta Nafarroako Unibetsi-tatearen tarteko prezioan ga-biltza. Eskola honen erronka da, inor ez dadila ikasketak egin gabe gelditu diru arazo-engatik. Beka sistema eskain-tzen zaie eta bigarren urtetik aurrera, lan praktikak. Ikasle-arentzat kostea izango du, baina diruaz gain, ondo etor-tzen zaie eduki aldetik ere, esperientzia handia hartzen baitute.



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA



ARANDIA

Garaiea

LADA
Ssang Yong

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
943 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

San Prudentzio jaiak Lazkaon

Apirilak 27, ostirala:

10:30ean: Jubilatuen ibilaldi neurtua.

16:00etan: Xakea haurrentzat plazan.

17:30ean: Play Back gazte-txoentzat, plazan.

18:00etan: Prudentzio deunaren ermitan bezperako elizkizunak.

19:30ean: Udaletxetik suzuria botako da. Ondoren, Biri-bilketa konparsako erraldoi eta buruhandien irteera.

23:30ean: Etzakit musika taldea, Plazan.



11:00etan: Prudentzio deunaren ermitan meza nagusia.

12:30ean: Sebastian Lizaso eta Mañukorta bertsolariak.

Ondoren: herri kirolen erakustaldia; aizkoran, Peñagari-kano - Nazabal Berberena - Mugerzaren aurka eta Ugaitz eta Aratz aizkolari gazteak; harrijasotzen, Iñaki eta Inazio

Perurena. Guztia Antzar Gazteak txarangak alaiturik.

16:00etan: Euskadiko txapelketako Areto formulako rallya.

17:30ean: Oin Arin eta Iparraldeko Biez-Bat dantza taldeen emanaldia.

18:30ean: Eulizko arrantzari

buruzko bideo hitzaldia eta arrantza teknikaren erakustaldia, Kultur etxean.

19:00etan: Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

19:30ean: XXII. Sardina jana, Koldo trikitixa eskolako partaideek alaitua.

20:30ean: Drindots.

24:00etan: Mozorrotuentzat argazki saioa, Udaletxeko arkupean.

Apirilak 29, igandea:

10:30ean: Lazkaoko LVIII. txirrindulari proba.

11:00etan: Pelota eskolako partaideen erakustaldia.

12:00etan: Bessines Fanfarre frantsesaren emanaldia.

13:30ean: Txirrindulari probaren amaiera.

18:30ean: Ikasleen danborrada.

Ana Belén
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 26 31

Gurutze, 2 LAZKAO

GASTEIZ

ILEAPAINDEGIA

Festa onak pasa!!!

Hirigoien, 24

☎ 94388 05 83

LAZKAO

OSAKI

* Sendabelarrak

* Naturopata

* Masajista

Ana Mari Egea

Mikelar, 1 ☎ 943 88 93 62 LAZKAO

LEKIM
HAROZTEGIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
ALTZARIAK NEURRIRA

Ibabe Industrialdea, 11 pab. ☎ 943 16 12 83
LAZKAO ☎ (mugik.) 616 10 61 15



ILEAPAINDEGIA

Ornaiz

Jai zoriontsuak
denoi

Hirigoien, 12

☎ 943 88 92 41

LAZKAO

LAZKAO berogailuak

Jai zoriontsuak denoi ITURGINTZA - GASA

Pedro Berano Salcedo

☎ 943 883 158 - 610 214 153 ☎

Hirigoien, 34 LAZKAO

ANDERE
USA INDEGIA

- Depilazioak
- Solarium-a

Gurutze, 3
☎ 943 88 30 02

LAZKAO

OSTAISKA
Goxoki denda

✕ Goxokiak
✕ Fruitu lehorrak
✕ Izoziak

Elosegi, 2

LAZKAO

PIPAS
JATETXEA

Jaunartze, bataio edo edozein
ospakizunetarako aukera egokia

Albitxu baserria ☎ 943 88 08 05
LAZKAOMENDI



20:00etan: Goloka kale animazioa.

23:00etan: Centauro..

Apirilak 30, igandea:

9:00etan: Barazki azoka.

11:00etan: Artisau azoka.

11:30etan: Haurrentzako parkea.

12:30etan: Gazte Leku txarangarekin koadrilen bilkura plazaan.

18:00etan: Koadrilen kalejira Gazte Leku txarangarekin.

20:30etan: Drindots.

Maiatzak 1, asteartea:

10:30etan: Eskualdeko IX. igeri lehiaketa, Udaltz kiroldegian.

11:00etan: XIII. Bakailao lehiaketa.

12:30etan: Aldatz Gora fanfarrea.

16:00etan: Toka lehiaketa, Plazan.

17:30etan: Gorriti eta bere abereak.

18:00etan: XXI. Dantza libreko txapelketa, plazaan.

19:00etan: Aldatz Gora fanfarrea.

Lazkaomendiko jaiak

Maiatzak 5, larunbata:

11:00etan: XXV. Lazkaomendiko proba.

14:30etan: Tiro platoa.

17:00etan: Bat, bi, hiru... pailazoak.

23:00etan: Etxabe anaien trikitixa emanaldia.

Maiatzak 6, igandea:

11:00etan: Meza nagusia.

12:00etan: Haur jokoa.

13:00etan: Joxe Agirre eta Imanol Lazkano bertsolariak, txiste saioa eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.

17:00etan: Herri kirolak: Olsagasti eta Mindegia aizkolariak eta Iñaki eta Inazio Perurena harrijasotzaileak. Ondoren asto karrera.

18:30etan: Bertsolarien bigarren saioa eta txiste kontalaria.

19:00etan: Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak.



DAMA

ILEAPAINDEGI-ak

Festa onak opa dizkizue!!

Hirigoien, 16

☎ 943 88 58 95 LAZKAO

ARRIARAN MERTZERIA

Haurren jantziak

Hirigoien, 12

☎ 943 16 06 82 LAZKAO

UNAI

ARRANDEGIA



Ondo ibili festetan!

Gurutze, 4

☎ 943 88 79 33 LAZKAO

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g

☎ 943 88 80 23 LAZKAO



Jai zoriotsuak!

Loradenda

EGUZKI-LORE

✓ Andregai erramuak eta erregaliak

✓ Kotxe eta eliz apainketak

AMAREN EGUNEAN, MAIATZAK 6, GOIZEAN ZABALIK

Hirigoien, 24

☎ 943 88 49 65 LAZKAO



TAPIA

Instalazio
elektrikoak

Ibabe Industrialdea, 18 ☎ 943 88 95 94
82 postakutxa LAZKAO

Garin

OKINDEGIA

Hirigoien, 14 | Pl. Nagusia, 5

☎ 943 16 23 36 ☎ 943 88 04 33

LAZKAO ORDIZIA

ITXURRENE TABERNA

Bazkariak
Jaunartzeak
Bataioak...

☎ 943 885759 LAZKAOMENDI

PELLO BIDE GAIN HARATEGIAK

Jai zoriotsuak opa dizkizue

☎ 943 88 93 57

Mikelar, 1 LAZKAO

Lazkaomendiko Alarpe Zalditegi eskola: Raid zaldi proban espezializatua

Martin Garmendia zaldibiarrek 1988an ireki zuen zalditegia, lehenengo Larraitzen eta ondoren Lazkaomendin. 20 zaldi ditu bertan. Eskola bezala funtzionatzen du Alarpe zalditegiak eta gaur egun raid iraupeneko proban espezializatuak daude, Goierriko ingurunea aprobeztatuz.

Zaldien munduaz hitz egi-tean, hipodromoko lasterke-tak eta zaldien jauziak datoz-kigu burura. Beti ere, "abe-raskiloekin" lotutako kirola. Hala ere, bada modalitate bat, askoz ere herrikoia dena, raid du izena. Konparazio ba-tera, iraupeneko eskia eta al-pino eskiaren arteko ezber-dintasuna izango litzateke.

Raid proba iraupen luzeko proba izaten da. Zaldiaren gainean, aurrez markatutako ibilaldi luzeak egin behar izaten dituzte. Gazteenek 80 eta 120 kilometrokoak egiten di-tuzte. Josu Usabiaga ordizia-



Irati Aldanondo lazkaotarra eta Lide Aristegi beasaindarra Espainiako txapelketan. Hurrengo orriko argazkian, taldea zaldiari eta zaldizkoari laguntza emanez.

rrak 80 kilometrokoa egina du; Lide Aristegi beasainda-rrak eta Irati Aldanondo laz-kaotarrak, Aste Santuan, Se-govian, Espainiako txapelke-ta jokatu zuten, junior mailan, 120 kilometro eginez. Aristegik Euskadiko selekzioarekin eta Iratik bere kontura.

Martin Garmendiak, raid proba hau zertan datzan adie-razi digu, gure artean guztiz ezezaguna baita. "Bost zati-tan banatzen da proba. 4 kon-trol pasatzen dituzte aurretik eta bosgarrena azkenean. 26. kilometroan esaterako, albai-

tariak egoten dira, zaldiari kontrola egiteko. Aurrera se-gitu dezakeen ala ez erabaki-tzen dute". Zaldia asko zain-tzen dute ibilbide osoan ze-har. Zaldiak kontrol bakoitze-an pultsu zehatz bat eduki be-har du, 120 kilometroko ka-rreraran adibidez, 64 pultsa-zio; 80 kilometrokoetan 54. Gehiagorekin erretiratu egi-ten dituzte. Beraz, hori ere kontrolatu egin behar da. Launako taldeak izaten dira eta lauen denbora hartzen da kontuan sailkapena egitera-koan. Segovian zilarretik oso

gertu izan ziren euskaldunak, baina azkenean zaldi bat he-rren gelditu eta kanporatu egin zuten zaldia. Bosgarren gelditu ziren.

Txapelketan zaldizkoare-kin batera, dozenardi bat la-guneko taldea joaten da ger-tuan, zaldiak eta zaldizkoak behar duen guztia emateko. "10 kilometroka topo egiten dugu lasterketan doanarekin. Autoz, joaten gara. Zaldiari ura, elektrolitoak, bitaminak.. ematen dizkiogu. Gainean doanari ere bai."

Edonork egin dezakeen ki-rola da. Lazkaomendin esate-rako, 11 urte eta 64 urte bitar-tera artekoak ibiltzen dira, gi-zonezko zein emakumezko. Goierriko ingurunea aprobe-txatuz, ibilaldi ezberdinak egiten dituzte astero. Talde polita osatu dute eta oso giro polita daukate. Maite Mendi-zabal lazkaotarra gurasoa da eta bere alabarekin batera ibiltzen da zaldian. "Familia giroa dago. Aukera bikaina da gure seme-alabekin batera kirola egiteko. Ingurua ere

TUZENKI

AHOLKULARITZA

Elosegi, 16

© 943 16 23 93

LAZKAO

*Aholkularitza
juridikoa,
fiskala,
laborala,
kontablea...*

*Errenta
aitorpenak*

**TXEKin programarako
homologatutako
erakundea**



Ondo pasa festak!!



GARAIZ

jantziak

Jai zoriontsuak denoi!

Hirigoien, 8-10

Tel.: 943 880 840

LAZKAO



ezagutzen da eta ez da kirol garestia. Eskiatzea garestia-goia da", dio.

Zaldia ere ezagutu

Zaldian ibiltzen ikasi nahi duenarentzat dago irekita Alarpe zalditegia. Bertara hurbildu besterik ez duzue informazio zehatza jasotzeko. Zaldian ibiltzen ikasteaz gain, zaldia ezagutzen ere erakusten da. "Raid egiten dutenak, anaia bezala ezagutzen dute zaldia. Bide bazte-

rrean plastikoren bat ikusten badute zaldia ikaratu egingo dela badaki eta beste aldetik joango dira, edo erreka txuloa pasatzen bildurtzen dela baldin badaki, beste zaldi baten atzetik joaten saiatuko da... ikasi egin behar izaten da".

Terapia lana ere betetzen dute zaldiek. Ezindu fisiko eta psikoein ere lan egiten dute ostegunero Lazkaomen-din.

Goierriin raid proba ezagutzera ematea helburu

Gure inguruan oso ezezaguna da raid proba. Hori dela eta, Goierriin bi txapelketa antolatzeke asmoa dago aurten, kirol hau herritarrengana hurbiltzearen. Ordiziako jaietan 80 kilometroko raid proba egin nahi dute. Otzaurten ere beste bat egitekotan dira, iraila bukaeran edo urri hasieran.

Arabiar Emirerri Batuak

Arabiar Emirerri Batuan zaldi lasterketek garrantzia handia daukate. Dirutza handia jokatzen dute apustueta, basamortuko lasterketetan. Hori dela, Arabiar Emirerri Batuko erregea Gasteizen izan zen, bertan jokatu zen 160 kilometroko proba ikusten. Herrialde horretako pertsona adituak Espainiar Estatuan dabilta, zaldiak kontrolatu eta onenak erosteko helburuarekin. "Dirutza ordaintzen dute zaldi on batengatik, 10-15 milioi inguru". Martinek ba omen du zaldi on bat. Gogor ari dira entrenatzen eta hezten.

Arabiar eta angloarabiar arrazako zaldiak erabiltzen dituzte proba mota honetarako. "Arabiarrek erresistentzia handia daukate, eta angloarabiarrek, abiadura eta erresistentzia. Horrelako karretererako arraza hauek dira egokienak", dio Martinek.

Ainhoa
ILEAPAINDEGIA

☎ 943 88 87 75

Elosegi, 19 - behea

LAZKAO

*Jai
zoriontsuak
igaro ditzazuela!*

M. ARTOLA
MODELOAK

Fundiziorako modelo eta plaken tailerra.

Zubi Erreka, z/g

☎ 943 88 79 30

LAZKAO

AMEBI



Sagardotegia

Sanprointzioak ondo pasa!

Apirilak 28, larunbat gaua eta
apirilak 30, astelehen eguerdia
trikitilarietkin alaituak.

☎ 943 16 25 23

Zubierreka, 9

LAZKAO

IÑAKI BARANDIARAN
arrandegia

*San Prudentzio jai
zoriontsuak denoi!*

☎ 943 88 00 56

San Jose, 29

LAZKAO

JOSUNE
arrandegia

☎ 943 18 03 67

ATAUN



ZUREMOTO, C. B.

GAS GAS banatzaile ofiziala

Hiribarren Atze Poligonoa, 1

☎ 943 88 39 03

LAZKAO

Arramendi baserria, duela 200 urteko udaletxea, berritzen ari dira


Urte askotan hutsik egon ondoren berritzen ari dira Lazkaoko Arramendi baserria. Historia luze eta oparoa duen etxe hau ezezaguna izango da hainbat herritarrentzat. Zaharberritze hau aitzakitatzat hartuta Joxe Arregirengana jo dugu eta beraiek dakitenaren berri eman digu.

Arramendi izen bereko gainaren magalean dago, Lazkao eta inguruen bista ederrekin. Agian, dagoen lekuaren garrantzia dela eta izango zen garai batean Arieriako udaletxea. XVII. mende hasieran Lazkao, Olaberria, Arriaran eta Itsasok osatzen zuten Arieriako Udala.



Itsaso eta Arriaren banatu ondoren, XVIII. mende bukaeran Lazkao eta Olaberriak elkarrekin jarraitu zuten Arieria izaten, 1804. urtean banatu arte.

Arramendi izan zen urte horietan Arieriako udaletxea eta txandaka izaten zen alkatea: 3 urtetik 2tan lazkaotarra izaten zen alkatea 3.ean, berriz, olaberritarra. Oraindik ere bi udalek harmarri berdina dute.



Arramendiko horman zegoen harmarria.

Horren aztarna bezala etxeko sotoan bertakoek kartzela deitzen zioten gela zegoen, gerra ondorenean txatarrara saldu arte bere burdinnezko ate eta guzti. Gela hau garai batean udaletxeko kartzela izan zena hain zuzen ere.

Auto EASO

ibabe industrialdea, 13
LAZKAO ☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

ARTANO

Jai zoriontsuak denoi!

ARRANDEGIA

Uhaitz, 2 ☎ 943 882 444 LAZKAO

LORENA

Jai zoriontsuak denoi!

ARRANDEGIA

Hirigoien, 18 ☎ 943 88 5171 LAZKAO

Aseguru Korreduria

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE, S.L.

Elosegi, 1 - behea

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Mundu-Bi

**BEREBILEN ELEKTRO
KONPONKETAK**

**HIRIBARREN, 17
TFNOA.: 943 88 74 58
LAZKAO**

JAKINTZA IKASTOLA

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxa: 943 16 07 90 E-mail: ordizia@ikastola.net

Batxilergoa

Jakintza ikastolan


Natur eta Osasun Zientziak

Giza eta Gizarte Zientziak

- ⇒ Herrigintzatik sortutako eskola eredua
- ⇒ Euskaraz Bizi eta Euskara Elkarte ikastolan
- ⇒ Gertuko harremana
- ⇒ Kalitatea datuekin eta emaitzekin frogatuz
- ⇒ Deitu eta zita adostuko dugu! (943 16 05 40)



*San Prudentzio
jai zoriontsuak
denoi!*



AGURRA

San Prudentzioren omenez ospatzen ditugun jaiak direla eta dudan aukeraz baliatu nahi nuke, lazkaotar eta egun hauetan gure artean izango zaituztegun guztiok agurtu, eta jai alai batzuk opatzeko. Aldi berean, azken urte honetan utzi gaituzten herritarrak eta, arrazoi ugari medio, gure artean izango ez ditugun lazkaotarrak ere gogoan izan nahi nituzke.

Egun hauetako jai giroak, egunerokoak sortzen dituen ika-mika, tentsio eta diferentziak gainditu eta, aldi berean, egun bizi ditugun une zail hauetan horrenbeste behar ditugun elkarganako laguntasun eta elkartasun zubiak eraikitzeke balio diezaigutela.

Lerro hauetaz baliatuz ere nire eskerrik beroena agertu nahi nizueke festa hauetako egiteraua prestatu eta berau gauzatu ahal izateko zeuron denbora eskainiko duzuen guztioi.

Gora Lazkao, Gora San Prudentzio jaiak!



Felix Urkola
Alkatea

Idiazabal gazta: izena eta izana

Maiatzaren 6an Gazta eguna Idiazabalen

V. Gazta eguna ospatuko da Idiazabalen, maiatzaren 6an. Herriaren izena daraman gazta izango da protagonista. Hurrengo orrian duzue Gaztaren Egunaren inguruan antolatutako ekitaldien berri. Artikuluan, berriz, Idiazabalgo gaztari fama eman izan dioten idiazabaldar artzainen berri ematen da. Izan ere, historian zehar, Idiazabalgo artzainek, sari ugari irabazi dituzte, bai Euskal Herrian, bai Madrilan. Xabier Urteaga eta Maitane Urteaga idiazabaldarrek egindako ikerketa lanaren



emaitza da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 1894. urtean izaera ofiziala eman zien Euskal Jaiei. Literatura, musika eta euskaldunen ohiturak biltzen ziren Euskal Jaietan. Foru Aldundiak antolatuta, urtero, nekazaritza, abelzaintza eta horiekin lotutako industriaren inguruko lehiaketak egingo ziren. Lehiaketetan ahalik eta gi-

puzkoar gehienek parte hartzea zen Diputazioaren helburua. Horretarako dekretuz onartu zuen lehiaketen berri denboraz ematea herritarrei.

1896an hasi ziren Euskal Jaiak ospatzen Oiartzunen, eta hala egin zuten etengabe 1913a iritsi arte. Urtero egingen ziren lehiaketen ataletako bat, esnekiei eskainitakoa izaten zen. Gurina, ardi gazta

eta behi gazta lehiaketak egingen ziren. Lehiaketa horietan idiazabaldarrek ia urtero hartu zuten parte eta ardi gaztaren atalean sari ugari lortu zituzten. Gipuzkoako Artxibo Orokorrean, 1896tik 1913 bitartean egindako 14 lehiaketen emaitzak bilduta daude. 41 sari banatu zituzten ardi gazta lehiaketetan, horietatik 30 Idiazabalgo artzainentzat izan ziren. Honebestez, sari-tutako gazten %73 Idiazabalen egindakoak ziren. Idiazabalgo gaztak, aurretik fama izan ala ez, lehiaketa hauetan ezagun izatea lortu zuen, Euskal Jaietan banatutako sari-rien berri Gipuzkoa guztiak izaten baitzuen.

IDIAZABALEN IV. GAZTA EGUNA Maiatzak 6, igandea



**Idiazabalgo
Udala**

Egitaraua

Maiatzak 2, asteazkena:

19:00etan: Mami txapelketa Atxurbide elkartearen.

20:00etan: Gazta dastaketa.

Maiatzak 3, osteguna:

19:30ean: Atxurbide elkartearen, ardo dastaketa.

Maiatzak 4, ostirala:

19:30ean: Xabier Urteaga eta Maitane Urteagaren 'Idiazabal eta Gazta' liburu argitalpenaren aurkezpena Pilarreneako ganbaran.

Maiatzak 5, larunbata:

21:00etan: Herri afaria herriko elkarteetan.

Maiatzak 6, igandea:

10:00etan: Gazta salmentarako postuen irekiera.

11:00etan: Herriko artzainek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora.

11:00etan: Artilegintza erakustaldia.

12:00etan: Mami erakustaldia.

12:30ean: Erramun Martikorenaren kantaldia.

13:00etan: Agustin eta Inazio Imaz artzainei eta Nikolas Seguralri omenaldia.

Arratsaldean: Urrezko aizkorako banakako txapelketako finalerdia, Igarondo pilotalekuan.

Urtea eta lekua	izena	baserria	saria
Ouartzun, 1897	Felix Oiarbide	Ettxetxo etxeberri	20 pezeta
	J. Antonio Oiarbide	Mujikaenea	40 pezeta
	J.A. Aranburu	Tronpallur	40 pezeta
Zestoa, 1898	Ladislao Oiarbide	Biona	50pta (1.go)
	Antonio Oiarbide	Olariaga	40 pta (2.)
Zumarraga, 1899	Antonio Oiarbide	Olariaga	50 pta (1.)
	Ladislao Oiarbide	Biona	30 pta (3.)
	Juan Esnaola		20 pta (4.)
Zumaia, 1900	Juan Esnaola		50 pta (1.)
	Joxe Iparragirre		40 pta (2.)
	Antonio Oiarbide	Olariaga	30 pta (3.)
Azpeitia, 1901	Jose Kruz Oiarbide		50 pta (1.)
	Ladislao Oiarbide	Biona	40 pta (2.)
	Juan Esnaola		30 pta (3.)
Oñati, 1902	Jose Kruz Oiarbide		40 pta (1.)
	Jose Maria Lardizabal		30 pta (2.)
	Kintin Altolagirre		20 pta (3.)
Irun, 1903	Felix Oiarbide		30 pta (2.)
	J.A. Elorza		20 pta (3.)
	Ladislao Oiarbide	Biona	10 pta (4.)
Ordizia, 1904	J.A. Elorza		30 pta (1.)
Bergara, 1905	J.A. Elorza	Mujikarena	30 pta (1.)
	Jose Kruz Oiarbide		20 pta (2.)
Eibar, 1908	Juan Bautista Oiarbide		30 pta (1.)
Hernani, 1909	Jose Urkia		20 pta (1.)
	Jose Kruz Oiarbide		5 pezeta (3.)
Azkoitia, 1910	Jose Kruz Oiarbide		20 pta (1.)
Segura, 1911	J. A. Elorza		20 pta (2.)
	J.M. Esnaola		15 pta (2.)
Tolosa, 1913	Jose Kruz Oiarbide	Loidi	15 pta (2.)
	Simon Aldasoro	Gatzinaritxulo	10 pta (3.)

Madriren ere sarituak

Idiazabalgo gaztaren izena, Madriren herritarren batek ateratako sari batekin ere lotzen du idiazabaldar askok. Ikertatuakoaren arabera, XIX. mendearen azkeneko urteetan edo XX. mendearen lehendabizikoetan gertatu zen. Gorria zelako jendearen arreta erakarri zuen Madriren eta saritan diploma bat jaso zuen. Herriko idazkariari esker iritsi omen zen Idiazabal-

go gazta hori Madrila. Saria nork irabazi zuen ez dago argi. Goatseko Jorge Otegi, Inazio Mujika eta Jose Antonio Elorza dira aipatu diren izenak.

Ardi gazta lehiaketa gehiago egin dira mende honetan, baina datu gutxi agertzen da. Esaterako, 1923an, Urbizuko Inazio Mujikak 1.go egin zuen Donostian. 1942an, Enpagolatzako Prudenzi Elorzak, 2. Tolosan.

Egitaraua

Maiatzak 2, asteazkena:

19:00etan: Mami txapelketa Atxurbide elkartearen.

20:00etan: Gazta dastaketa, Joserra Agiriano adituarekin, Atxurbide elkartearen. (Izena udaletxean eman behar da apirilaren 27rako. Gehienez 30 lagun).

Maiatzak 3, osteguna:

19:30ean: Atxurbide elkartearen, ardo dastaketa Joserra Agirianoarekin. (Izena udaletxean eman behar da apirilaren 27rako. Gehienez 30 lagun).

Maiatzak 4, ostirala:

19:30ean: Xabier Urteaga eta Maitane Urteagaren 'Idiazabal eta Gazta' liburu argitalpenaren aurkezpena Pilarreneako gainbararen. Joaten direnei liburua emango zaie.

Maiatzak 5, larunbata:

21:00etan: Herri afaria herriko elkarteetan (txartelak aurrez salgai tabernetan).

Maiatzak 6, igandea:

10:00etan: Artzainek gazta salmentarako postuak irekiko dituzte.

11:00etan: Herriko artzainek gazta egingo dute era zaharrera eta modernora.

11:00etan: Artilegintza erakustaldia.


12:00etan: Mami erakustaldia.

12:30ean: Erramun Martikorenaren kantaldia.

13:00etan: Agustin eta Inazio Imaz artzainei eta Nikolas Seguralri omenaldia.

Arratsaldean: Urrezko aizkorako banakako txapelketako finalerdia, Igarondo pilotalekuan.

Oharrak: Goizean, gazta dastatzeko aukera izango da. Gazta onena eta postu dotoreenari sariak emango zaizkie, bildutako jendearen iritzia kontuan hartuz. Trikitilariak eta txistulariak alaituko dute giroa. Hainbat jaki eta edari postu ere egongo dira. Euskal artzain txakurrak eta 'Mastin' arrazakoak erakusgai izango dira. Herritarrei artzain jantziekin jantzita irtezea eskatzen zaie.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Inazio Garmendiak Joxe Mari Korta saria jaso du

Joxe Mari Kortaren omenez aurten lehen aldiz banatu izan diren sarien artean herritar Ignazio Garmendia izan da sari-tua. Joxe Mari Korta saria eta izendapen berezia, beraien bizitzako urte asko eta asko enpresa lanetara eman izan dituzten enpresa gizonei eman dizkiete. Aipatu saria beraien lanaren goraipamen eta eskertzaren lekuko izan da.

Sarituia izan den Ignazio Garmendiak bere bizitzako urte asko herriko Letag enpresako zuzendaritzan eman ditu. Letag 1955. urtean sortu zen, ordu ezkerotik gaur egunera arte bilakaera zabala izan du. 1981. urtean Letag Elkarte Anonimoa izendatu zuten, ehun langiletik gora izatera iritsi arren egun 75 inguru ditu. Bere pabilioiak 5.800 metro karratu inguru ditu, biltegiek berriz 3.000 metro karratu hartzen dituzte. Lantegia 7.000 metro karratuz inguraturik dagoelarik.

Letag enpresaren hastapenetan pulidora handiak, garabientzako motorrak, bai zubigarabietarako eta baita dorre garabietarako ere eta abar egiteari ekin zioten. Beran-

duago alternadoregintzan hasi ziren. 1992-1993 urteetan motore elektrikoan alorrak jasau zuen krisiaren ondoren serieko lana alde batetara utzi eta motore berezienean espezializatu zen. Ordu ezkerotik Letag enkarguzko lanei erantzunez lan espezializatuak burutzen dituen enpresa dugu.

Letag bezalako enpresa baten bilakaera lerro gutxitan adierazi zaila gertatzen bada ere historian zehar enpresaren ildo nagusienak zeintzuk izan diren ezagutzera eman ditugu. Letag enpresaren gidaritzapean, bilakaera luze-zabala, onura eta zailtasunak eta beste hainbat eta hainbat gertakizun bizi izan dituen Ignazio Garmendiak jaso beza guztion zorionik beroena, herrirako sortu izan duen onura eta herritarren artean banatu dituen lanpostuen lekuko bezala jaso izan duen sariagatik.

Datorren aldizkarian Ignazio Garmendiari egin nahi geniokeen elkarrizketa jasotzeko asmoa dugu, berak bizi izandako gertakizunei buruz gauza interesgarriak kontatuko dizkigunez zuengana iristearaziko ditugu.



Giro ona Korrikaren inguruko ospakizunetan

Aurtengoan hamabigarren aldiz ospatu zen Korrikak, Gasteiz izan zuen abiapuntua eta Baiona berriz helmuga, baina aipatu bi euskal hiriburuen artean hainbat eta hainbat herri iragan zituen, beraien artean gure herria izan zelarik. Korrika apirilaren 2an eguerdiz igaro zen gure herriko kaleetatik zehar.

Baina Korrikaren inguruko ekitaldiak ez ziren korrikaldira bakarrik mugatu, martxoaren 31n Korrika antolatzeke Batzordeak Guraso Elkartearekin batera eta Ormaiztegiko Udalaren laguntzaz prestaturiko hainbat ekitaldi burutu baitziren. Arratsalde guztian zehar partxis, mus, zaku karrerak, koxkol lasterketa, aulki jokoa eta abarretan parte hartzeko aukera izan zen. Ondoren txokolatea banatu zen nahi zuten guztiek dastatu ahal izan zutelarik. Guztia herriko trikitilariak alaituriko giroaz.

Partxis eta mus lehiaketek arrakasta eta partaidetza handia izan zuten. Aipatu lehiaketen amaieran ondorengo bikoteak izan ziren irabazle. Partxis lehiaketan lehenengo postua Maialen Ezeolaza eta Martina Eskisabelek osaturiko bikoteak lortu zuten. Bigarren postuan, berriz, Eneritz Alberdi eta Amaia Jaka sailkatu ziren.

Korrika mus txapelketan irabazle gertatu zen bikotea Begoña Eskisabel eta Asier Etxarrik osaturikoa izan zen. Bigarren postua Zeles Simon eta Joseba Kanposek lortu zuten.

Argazkietan, Korrika partxis lehiaketako irabazleak.

Jubilatuaren ibilaldia Olitera

Datorren maiatzaren 10ean herriko jubilatuen elkarteak antolatuta elkartekideek Olitera bidaiara egiteko aukera izango dute. Bazkaria Azagra herriko Hostal Venecia deituriko jatetxean burutuko dute.

Bidaiara joateko izenemateak maiatzaren 2 eta 3an elkartearen bertan burutu behar direla jakin arazi nahi da. Izenemateak egiteko ordutegia goizez 12:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara bitartekoa izango da.

Aitziber Murua

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

RUGAZTIBI
AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Apiriletik ekainera
errenta aitortpenak
egiten dira

ORDIZIA
9:00etatik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia



Udalak Euskal Naziotasun agiria igorriko du

Zaldibiako udalbatzak Euskal Naziotasuna aitortzeko agiria Udalbiltzaren bitartez eskatu eta igortzeari buruzko udal araudia aho batez onartu zuen, apirilaren 11n ospatu zen ez ohiko bileran. Nazioarteko erkidegoek, zenbait tratatu eta akordio bidez, gizaki guztiek naziotasuna izateko eskubidea dutela eta inori ez zaiola bere naziotasuna edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kenduko aitortu dute.

Hau dela eta, Zaldibiako udalbatzak oinarritzko askatasun hauekin bat egin zuen, "justizia eta demokraziaren gutxieneko oinarriak direlako, eta erakunde publiko den heinean, errespetua, askatasuna eta eskubide hauen egikaritzea sustatzeko betebeharrak duelako, inolako desberdintasunik egin eta inolako mugarik jarri gabe".

Zaldibiako Udalak Euskal

Naziotasuna Aitortzeko Dokumentua eskuratu eta trami-teak egiteko epeak finkatu gabe ditu oraindik, baina maiatzatik aurrera eskaera-inprimakia betetzeko aukera eskaini nahi die herritarrei. Agiri honetan, herritarraren datu pertsonalak agertu dira bera dela egiaztatzeko, baita argazkia, sinadura eta Euskal Naziotasuna nahi duela adierazten duen aitortpena ere.

Euskal Hezkuntza sistemaren alde

Egun berean, Zaldibiako udalbatzak Euskal Herriko sei herrialdeak bilduko dituen hezkuntza sistema propio baten aldarrikapena berretsi zuen Udalbiltzak helarazitako mozioa onartu ondoren. Espainiako Gobernuak onartutako humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuaren aurrean, Zaldibiako udalbatzak honako adierazpenare-

'Euskal Presoak Etxera' kontzertua

Zaldibiko Gazte Taldeak (ZGT) kontzertu paregabea antolatu du maiatzaren 5erako, Amnistiaren aldeko mugimenduarekin elkarlanean. 'Euskal Presoak Etxera' goiburuean antolatu den jaialdirako egitaraua zabala da eta bertan parte hartzeko deia luzatzen dizue guztiei. Sarrera 1.500 pezeta kostatzen da eta Zaldibiko Joxepanen, Ordiziako Herrikoan, Beasaingo Arranon eta Tolosako Raku tabernan eskura daitezke. Hauxe da egun honetarako prestatu den egitaraua:

15:30ean: Mus Azkarra.

18:00-19:00etan: Jokoak.

19:30-21:30ean: Perkusionistekin poteoa.

Ondorenean, Kontzertua frontoian: La Polla, Skalariak, Zama eta Txapelpunk. Kontzertu artean sorpresak izango dira.

Juan Karlos Irizarren kontzertua

Juan Karlos Irizar eta Kiñu taldeak kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 27 ostirala, Zaldibiako antzokian. Piano musika entzungai, beti ere, euskal doinu eta kantu ezagunei erreparatzen die Irizarrek. Beraz, patxadaz kantari aritzeko aukera izango da gaueko 10,30etatik aurrera eta 300 pezetaren truke.

Herri Urratsera joateko autobusa

Dakizuenez, datorren maiatzaren 6an, azken orduko data al-daketa eta gero, Herri Urratseko edizio berri bat ospatuko da Senpereko aintziran. 'Doinuz eta Hitzez' leloa darama aurtengoak, eta Zaldibiatik bertara autobusez joan nahi duenak Kultur etxean izena ematea besterik ez du maiatzaren 3a baino lehen. Ikasle eta langabetuak: 500 pezeta. Langileak: 1000 pezeta

kin bat egin zuen: "Euskaldunok munduko gainontzeko herriek bezalaxe, geure hezkuntza sistema propioa antolatzeko eskubidea dugu. Eta eskubidea ezezik, beharra ere bai. Hezkuntza dekretu hau, euskaldunok gure hezkuntza

eredua antolatzeke dugun eskubidearen aurka doa. Honen aurrean, Zaldibiako udalak bat egiten du Euskal Hezkuntza sistemaren aldeko aldarrikapenarekin".

Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi

Gaztelu

- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

IBMi-ONDO ARROZTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
SYSTEM

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



MUJKA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

TXINDOKI-ALKARTA

Ugartemendi, 6. 20200 Beasain.

Batxilergo guzt

HUMANITATE ETA GIZA-ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Ekonomikak
Administrazio eta enpresa
Humanitate-enpresa
Zuzenbidea
Filologia eta Itzulpengintza
Geografia, Historia...

Unibertsitateko ibilbidea:

Administraritza
Merkataritza eta Marketing
Hostalaritza eta Turismoa
Zerbitzu soziokulturalak...

NATUR ETA OSASUN ZIENTZIEN BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Medikuntza
Erizaintza
Albaitaritza
Fisioterapeuta
Kimika
Matematika
Injinerutzak
Arkitektura...

Goimailako Lanbide Heziketa:

Ingurumen kimika
Informatika
Osasungintza
Nekazal jarduerak...

STOP


Izenematea: maiatzaren 2t

ASUNA INSTITUTUA

...tuen eskaintza

E-mail: orientazioa@jet.es

TEKNOLOGI BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Injinerutzak
Arkitektura
Fisika
Matematika...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Fabrikazio mekanikoa
Produktzio zerbitzua eta Mantenimendua.
Elektrizitate eta elektronika
Egurra eta altzariak
Automozioa...

ARTE BATXILERGOA



Unibertsitateko ibilbidea:

Arte Ederrak
Ikus-entzunezko komunikazioa
Industri diseinuko injinerutza teknika
Publizitatea...

Goi-mailako Lanbide Heziketa:

Irudia
Ikus-entzunezko ekoizpena
Diseinu eta ekoizpen editoriala
Altzari diseinua
Arropa diseinua...

2tik 11ra.

Telf. 943-880753

LAZKAOKO FESTETAKO GIROA

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 5 ☎ 943 88 20 29

GURUTZE TABERNA

SANPROINTZIO JAIETAN
PINTXOAK ETA BOKATAK

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

GURUTZE 1

GIROA TABERNA

*Pintxo ederrak
jateko aukera*

Areso, 6 ☎ 943 88 77 40

ANSOATEGI HERRIKOA



*Jaietan ere
falta direnak
gogoan*

Elosegi, 15 ☎ 943 88 68 52

DORRAO TXIKI

TABERNAK

*Festa zoriontsuak
opa dizkizue!*

ESTANKO TABERNA

*Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi*

Elosegi, 17

GERRIKO TABERNA

Pintxoak
Ogitartekoak

Elosegi, 16 ☎ 943 88 99 43



TABERNA


Uhaitz, 2 LAZKAO

KIROLDEGI TABERNA

*Eguneroko menua
Pintxoak
Bokatak*

☎ 943 16 19 66

ZELATA TABERNA



Lazkaomendiko txirrindulari probaren zilarrezko ezteiak

25 urte pasa dira lehen aldiz Lazkaomendiko txirrindulari proba egin zenetik. Aurten goan maiatzaren 5ean izango da, eta bertan gaztetxoen mailako hainbat txirrindularik hartuko dute parte. Txirrindulariak goizeko hamaitketan irtengo dira Lazkaotik, eta ia 75 kilometroko ibilbi-

dea osatu ondoren ordubata inguruan iritsiko dira Lazkaomendiko helmugara. Baina aurtengoan proba honek badi berezitasun bat: 25 urte betetzen ditu probak eta antolatzaileek urteurrena ospatu nahi izan dute. Horrela, maiatzaren bostean Lazkaomendin garaile suertatzen



1998an Jokin Ormaetxeak irabazi zuen Lazkaomendiko proba.

San Prudentzio ate joka

San Prudentziorekin batera, jaiak ere iritsi dira Lazkaora. Egitarauak hainbat ekintza biltzen ditu. Aurreko alean esan bezala, egitarauaren azalean Josu Konde lazkaotar gazteak egindako oleo bat ikus daiteke.

Bien bitartean, Goierriko Euskal eskolak festetarako pegatinak atera ditu. Azken lau urteotan, aktualitateko gaiak festa giroarekin batuz egin dituzte pegatinak eta aurtengoan ere ohiturari eutsi diote. "Eurotuta nago, eta ze?" dioen behi bat ikus daiteke pegatina hauetan.



Festetako egitarauaren barnean, parrandarako ez ezik, kirolarentzat ere gorde dute txoko bat antolatzaileek. Lazkaomendin gaztetxoek txirrindulari froga ospatuko da, eta Lazkaon berriaz, elite eta 23 urtez beherako txirrindulariak arituko dira lehian apirilaren 29an.

Hala ere, aipatutakoez gain, egitarauak beste hainbat ekintza biltzen ditu. Ale honetan bertan bildu dugu Lazkaoko festetako egitaraua. Ia guztiok festak ongi igarotzen ditugun!

dena Gipuzkoako txapeldun izango da. Gainera gonbidatu bezala Juan Jose Quintanilla, Lazkaomendiko txirrindularitzako lehen probaren irabazlea, izango da saria emateko.

Antolatzaileek pozik ospatuko dituzte probaren zilarrezko ezteiak; baina atzera begira jarritakoan, urte guzti hauetan izandako buruhauste eta zailtasunak ere ez dituzte ahazten. Horrelako proba bat antolatzeko lan asko egin behar dela diote, eta Lazkaoko herriari eskertu nahi diote hainbeste urtetan borondate onez egindako lana.

Lazkaomendiko txirrindulari proba honen irabazlearen artean, gero profesional mailara igarotakoak ere izan dira: Etxabe, Gorospe, Mujika, Oñederra, Azkune eta aurtengoa ere bide berdina jarraitzen duen!

Landareak ezagutuz

Maizpide euskaltegian landareen inguruko hitzaldia antolatu dute maiatzaren 9rako. Bertan Jesus Lopez Irastorza landareen sexuari buruz hitzegin du. Baina, landare ezberdinak gertutik ikusteko aukera ere izango da Maizpide euskaltegian. Maizpiden bertan, maiatzaren 7tik 11ra bitartean, Gipuzkoako zuhaitz eta zuhaixkak bilduko dituen herbarioa izango baita ikusgai.

Ansoategi herrikoa alakairuan

Ansoategi Herrikoa taberna alakairuan dago. Taberna hartzeko interesa dutenek izen-abizenak eta telefonoa eman behar dizkiote batzordeko kideren bati. Datuok Lazkaoko 88 posta-kutxara ere bidal daitezke nahi izanez gero.

Oihana Sarasola

AUTO-MOTO LAGUNAK

Ibabe Industrialdea, 19

© 943 88 91 51

LAZKAO

- ✖ Autoen konponketa orokorrean
- ✖ Gasolina eta diesela
- ✖ Norabide zuzenketa
- ✖ Olio aldaketak, koipeztaketak
- ✖ Gurpilak, zulatuak
- ✖ Diagnosiak



Bola txapelketa

Bolatako banakako bi torneo garrantzitsuenak erregularitatekoa eta Goierriko txapelketa dira, biak ere beren azken txanpara iritxiak.

Erregularitatekoa urtarri-lean hasi eta hamaika igande jarraian Gipuzkoako bolatoki ezberdinetan jokatu da. Azken asteburu honetan amaitu da eta bertan irabazle Antonio Alustiza izan da, 2.

Jokin Izagirre, 3. Pedro Lazkano, 4. Antonio Miner, 5. Joxe Ugalde, 6. Antonio Agirre, 7. Markos Madina, 8. Luis Aizpeolea eta 9. Zeferino Agirre.

Bederatzi bolari hauek aurten Laudion jokatu den Euskadiko Txapelketarako sailkatuak geratzen dira. Aipatu behar da sailkatuen artean bost goierritarrak direla

eta horietako bi zeraindarrak, irabazlea eta 8. sailkatua.

Goierriko Txapelketak berriz, hilaren 29an Segurako bolatokian izango du bere azken saioa, txapelketa honetan zeraindarrak bikain dabilzala ezan beharra dago, izan ere azkeneko bi tiraldietan, Zerainen eta Idiazabalen jokatuakoa Luis Aizpeolea eta Antonio Alustiza izan ziren garaile eta asteburu honetan erabakiko da irabazlea nor izango den.

Korrika Goierriin

Apirilaren 2an izan genuen korrika Goierriin eta Zeraindik pasatu ez bazen ere Zeraingo herriak bertan parte hartzeko aukera izan zuen Segurako herrian pasatzekoan, testigua hartu eta Xabier Dorronsorok, herri eskolako haurrek eta beste hainbat herritarrekin batera euskararen alde korrika egin zuten.

Mari Flor Mendizabal



Euskal Herritartasun Agiria abian

Euskal Herritartasun Nazio Agiria eskatu eta igortzeko Udalbiltzak Itsasondoko Udalarik helarazitako mozioa aho batez onartu zuten zinegotziek apirilaren 5ean Udalean egindako osoko bilkuran.

Aipatu mozioan nazioarte mailan onartzen diren oinarriko eskubideen aipamena egiten da. Bertan, herri guztiek askatasunez erabakitzearen dute eskubidea azpimarratzen da: "herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta, eskubide horren bitartez, beren egitura politikoa eta garapen ekonomiko, kultural eta soziala askatasunez finka de-

zakete". Era berean, "gizaki guztiek dute naziotasuna izateko eskubidea eta inori ez zaio bere naziotasuna aldatzeko eskubidea kenduko".

Mozioak argi adierazten duen moduan, EHNA dokumentuaren eskaera herritar bakoitzak bere borondatez egiten duen hautua da. Zinegotziek onartu zuten, "Udalerri honetako herritarrek beren naziotasuna aitortzeko eta naziotasun horri askatasunez atxikitzearen eskubidea dute eta, horrela izanik, ez da inolako desberdintasunik egingo, ez eta inolako mugarik jarriko".

EHNAren jabe denak, "askatasunez eta demokrati-

koki, Euskal Herri edo Nazio hiritar izateko nahia eta borondatea adierazten dute". Hein berean, Udalak mozioa onestearekin batera dokumentua publiko delako onartzen du eta dituen baliabide guztiak erabiliko dituela "auzokideek askatasunez eta eraginkortasun berberaz adieraz dezaten espainiar, frantziar edo euskal naziotasuna harreman komertzial, sozial eta juridikoetan (publikoetan zein pribatuak)".

Gauzak horrela, inork Euskal Naziotasuna Aitortzeko dokumentua (EHNA) eskatzeko asmorik balu, udaletxean bertan eskuratu ahal izango ditu eskaera-inprima-

kiak eta argibide-orriak maitzaren 2tik aurrera. EHNA egin ahal izateko aurkeztu beharreko dokumentuak honako hauek dira: 4 argazki, errolda agiria, legezko ordezkariaren dokumentazioa kasuan-kasu eta tramitazio gastuei aurre egiteko 2.000 pezeta sartu direla egiaztatzen duen agiria, hots, aurrezki kutxako ordain-agiria.

Aberri Eguna

Iaz bezala aurten ere hainbat herritarrek erantzun zioten apirilaren 15ean Aberri Eguna ospatzeko Udalbiltzak egindako deia. Eguerdiko hamabiak jotzearekin batera hasiera eman zitzaion ekitaldiari Udaletxeko balkoiko ikurriña jasoz. Ospakizunari amaiera emateko Udalbiltzak igorritako mezua irakurri zen herritarren aurrean.

Nagore Etxeberria

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- * **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- * **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- * **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- * **Kangurak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

© 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ©

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa


AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

Hitz egitea gustuko baduzu, zorionekoa zu



Zure Movistar Activa Packa deietan 10.000 pta. arte.

Prest egon zaitez denbora luzean hizketan gelditu gabe aritzeko. Zeren zure Movistar Activa Packa orain inoiz baino saldo handiagorekin baitator.

- + **4.000 pta.** Hasierako saldoa
- + **5.000 pta.** (Maxon Epsilon, Maxon MX6810, Trium Mars, Trium Aria)
- edo **2.000 pta.** (Ericsson A2628, NEC DB4000, NEC DB4100)
- + **1.000 pta.** kupoia bidaliz gero

Zure Movistar Activa kargatu dei bakar batez

Orain zure Movistar Activa kargatzea errazagoa da. Zure mugikorreтик, dei bakar batez. Eska ezazu zerbitzu hau movitel 2000ren edozein dendatan.

Kargatzeko modurik erosiena



movitel2000
Mugikortasun digitaleko zentroak

Toribio Alzaga - (ARCCO.ren parean) - DONOSTIA - Tel.:943/46 09 63
Oriamendi-Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN - Tel.: 943/80 50 89
Irunlarrea, 6 (Barañain Hirib. izkinan) IRUÑEA - Tel.: 948/19 70 72
www.movitel.com - movitel2000@movitel.com

Banatzaila Ofiziala: **Telefonica Movistar**

01/04/30 arteko eskaintza, promozioan ditugun terminalen arabera.

OLABERRIAN ETXEBIZITZA BIFAMILIARRAK



sarrera, sukaldea, egongela, 3 bainugela, 3 logela, 2 terraza, balkoia, garajea eta lur saila

ERAIKUNTZA ETA SALMENTA:

Tefnoa:

LANTEGUI S.A.

943 69 39 02



GOIERRITARRA etxeetara berandu iristen da Beasainen

Jakin badakigu azkenaldian Beasainen oso berandu iristen dela GOIERRITARRA aldizkaria etxeetara. Lerro hauetatik zera argitu nahi dizuegu. Nahiz eta GOIERRITARRA guztiak aldi berean sartu postetxean, arazoa, Beasaingo bakarrik dela, ez baitute egunean bertan banatzen. "Inpresoen pilaketa" omen da arazoia Beasaingo Postetxeko zuzendariaren esanetan.

Gero eta beranduago banatzen dutela ikusirik, GOIERRITARRA ari da saiitzen arazoa lehenbailehen konpon dadin. Arazoa areagotzen ari dela ikusirik, salaketa publikoki egitea erabaki du GOIERRITARRA aldizkariak Zuzendaritza Batzordeak.

Zuek, irakurleok, zuen aldetik ere zerbait egin badezakezue, postariari zuen kexua adierazi adibidez, GOIERRITARRA aldizkariak biziki eskertuko luke.



Azken batean, Beasaingo irakurleak zarete kaltetuak, inongo errurik gabe. Goierriko informazioa garaiz kanpo jasotzen baituzue.

Ia hiru milioi pezetara ordaintzen ditu GOIERRITARRA aldizkariak urtean, postaz, aldizkaria banatzeagatik. Beraz, Beasaingo irakurleek ere, gainerako goierritarrek duten eskubide berbera daukate GOIERRITARRA aldizkaria etxean garaiz jasotzeko.

*Goierritarra aldizkariak
Zuzendaritza Batzordea*

Kontzertuak Musika eskolako eskutik

Musika eskolak kontzertu sorta polita prestatu du maiatzaren 4, 15, 16 eta 17rako. Ikastetxeetako ikasleei zuzendutako kontzertu didaktikoa izango da maiatzaren 4an Usurbe antzokian arratsaldeko 3etan.

Antzerkia: Dar dar taldea

Porteria auzo elkarteak antolatuta, Dar dar taldearen eskutik, 'Alizia, bitxikerien lurraldean' lana ikusteko aukera izango da. Antzerki lan hau mota guztietako txotxongiloekin eginga da.

37. Argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri mendizale Elkartek, Udalaren babesarekin batera, 37. Argazki lehiaketa antolatu dute. Lanbidez argazkilariak ez diren zaletuek bakarrik izango dute parte hartzea. Lan guztiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztu behar dira eta egile bakoitzak, bost argazki aurkeztu ditzake. Aurrez inon saritu gabeak izan behar dute lanek. Argazkien neurria, teknika eta aurkezteko moduaz askatasun osoa dago. Gehienez ere 30 x 40 zm.ko kartoiez sendotuta. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 11n bukatuko da eta Argizpi Elkartera edo Aizkorri Mendizale Elkartera bidali behar dira. Sari banaketa maiatzaren 26an 19:00etan, Usurbe Antzokiko Erakusketa-aretoan izango da. 25.000 pezetatik hasi eta 15.000 pezeta bitarteko sari desberdinak emango dira. Beasaingo Buztina elkartearen tailerrean egindako zeramikazko ikurrak ere emango dira sari moduan.

Santiago Bidea bulegoa

Gipuzkoako Santiago Bidelagunen Elkartek urte batzuk daramatza dagoeneko ibilbide historiko hau zaintzen, bai seinalez tapena argi eta txukun mantentzen eta bai bidea bera itxuratzen premia dagoenean. Esperientzi hori besteen zerbitzura jartzea dute helburuetako bat Elkarteko kideek. Elkarte honek bulego bat zuen Donostian erromes joan nahi zutenei laguntza eta argibideak eskaintzeko. Aurrerantzean, Beasainen ere laguntza hori eskuratzeko modua izango da. Elkartek ostegunetan eskainiko du zerbitzu hau 19:00etatik 21:00etara Igartzako Belen Ermitan. Santiago Bidea egiteko informazioa emango da aipaturiko lekuan eta gainera, gaiari buruzko hainbat argitalpen eskuratu ditzake bertaraten denak.

Estaligabeko igerilekuen zerbitzuen kontratazioa

Estaligabeko Igerilekuetako zerbitzuen kontratazioarako oinarriak onartu ziren martxoaren 22an. Antzizar Kiroldegik Bulego Orokorretan eskura daitezke. Bete beharreko zerbitzuak hauek dira: sarrera eta informazioa, garbiketa, aldaketak, igerilekuetako uraren kontrola eta taberna. Ekainaren 1etik irailaren 15era burutu beharko dira zerbitzuak. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 7an bukatzen da.

Nekane Altuna

Maiatzaren 5ean arratsaldeko 6etan, Ezkierdi Ezkiaga auzoko pilotalekura agertu besterik ez duzue.

Odol ateraldia

Maiatzaren 9an, asteazkena, urteko zazpigarren odol ateraldia egingo du Beasaingo odol-emaleen delegazioak. Ohi den bezala, arratsaldez izango da 6etatik aurrera Urbi-Etxeko lokaletan. Ohiko emaleez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.



Iñauti
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

Ainhoa Agirreazaldegik irabazi zuen Osinalde saria

Iragan apirilaren 7an jokatu zen Osinalde elkartearen bertsolari gazteentzat bideratutako sariketaren azken saioa, Goierriko hiru elkartetako finalaurrekoetatik sailkatutako sei bertsolari gazte protagonista zituela. Bost gipuzkoar eta bizkaitar bat, tartean hiru goierritar: Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Apalategi beasaindarrak eta Alaitz Sarasola ordizi-altzagarra. Ainhoa Agirreazaldegik bergararrak, Itziar Eizagirre hernaniarrak eta Gorka Ostolaza markinarrak osatzen zuten seikotea.

Ohiturari jarraituz, pika-txa-tortila eta arkumea afaldu ondoren hasi zen saioa. Iñaki Murua aurkezle eta gaijartzaile zela, afaltiarrek nahiz bertaratu ziren ikusentzule ugariek bertsozko gau oparoa izan zuten afalostearen gozagarri. Sei gazteak maila oso onean aritu ziren, bertso ederrak noiznahi kantatuz. Azkenean, urtero eman ohi den bertso onenaren saria izendatzeko zailtasunak aitortuta, bigarrenari eman zi-

tzaion horretarako jarrita zegoen garaikurra, hainbeste ale ederren artean aukeratzea ezinezkoa eta justua ez zela ikusita.

Gai aldetik ere umorea lantzeko egokiak zirenak ipini ziren, hala nola kartzelakoa, edota jaiotzetik eskola utzi arte ikasle baten bizitza kontatzekoa, aurrekoaren hariri jarraituz seiek parte hartu behar zutena. Bakarkako atalean, Ainhoa Agirreazaldegik euskaldunak nolakoak garen esplikatzat kantatu zuena ere bikaina izan zen. Saioa borobila, bizia eta maila altukoa atera zela izan zen entzuleen iritzia.

Epaianetan Jokin Matxinandiarrena, Nikolas Zeberio, Altzo-txiki, Joxe Mari Gabiria, Euxebio Igartzabal eta Mikel Agirre aritu ziren, eta 30. edizio honetako irabazle bezala Ainhoa Agirreazaldegik eman zuten. Zarautzen bizi den bergararrak asteburu biribila burutu zuen, hurrengo goizean bertan Añorgako Orixe txapelketa ere berak



Aberri eguna

Euskal Herri osoan bezala, Gabirian ere Aberri Eguna ospatu zen joan den hilaren 15ean. Elizatik irteeran dantzariak arkua eginez zinegotziak udaletxeko balkoira igo ziren, ikurrinaz apaingua zegoena. Aurrekoa eta ikurrin dantza egin ziren plazan, Euxebio Igartzabalek eta Iñaki Muruak bertsoak kantatu zituzten eta haritz landare gazte bat sartu zen, bertan zirenetan pertsona zaharrenaren eta gazteenaren artean, Juan Inazio Izagirre eta Aratz Igartzabal, egunaren ikur gisara.

eskuratu baitzuen. Bigarren postuan Ekaitz Goikoetxea gelditu zen, hirugarren aldiz finalean sartzea lortu arren garaipenaren atzetan geratu behar izan zuen. Entzuleen saria Iñaki Apalategirentzat izan zen.

Errifako zenbaki sarituak: Lehenengo saria: 1.138. Bigarren saria: 1.394. Bien ala bien jabeak ere berehala agertu ziren.

Aimar Maiz

Labur-labur

● **Heriotzak:** apirilaren 3an hil zen Irazola baserriko Damaso Uribeberria, 78 urterekin. Hilaren 10ean Zuzula baserriko Juxta Legorburu Aizpeurrutia, 90 urterekin.

● **Bolak:** Erregularitate txapelketako 10. jardunaldia (2001-04-08), udal bolatokian. Sailkapena: 1. Iñurritegi (47), 2. F.Galarraga (47), 3. J.M.Etxebeite (46), 4. I.Azarola (46).

● **Musika:** iaz bezala aurten ere Oroitz Maiz Alemaniako Klingenthal hirira doa, nazioarteko akordeoi txapelketa ospetsuan parte hartzera. Maiatzaren 3tik 11ra jokatu da. Oartzunen, Lleidan, Lizarran eta Noainen eman ditu orain arte kontzertuak.

● Kalean da jada **Makilari** herri aldizkariaren 12. alea. Herriko pertsona ezagunei elkarriketak, erreportaiak, artikulak, berriak, eskola, denborapasak... Den-dena herritarrek eginga. Udaletxean edota tabernetan eskuratu daiteke.

Pilota txapelketako emaitzak

Bigarren edizio honetan 29 bikotek hartu dute parte, Zumarraga, Urretxu, Ormaiztegui eta Gabiriako pilota eskoletakoak. Osinalde elkarteak antolatu du txapelketa hau Gabiriako Udalaren laguntzarekin. Hilaren 7an jokatu ziren maila desberdinetako finalak. Hauetxek emaitzak:

- **Benjamin mailan:** Joanes-Quinak (Zumarraga) 18 - Muñoz-Alemanek (Zumarraga) 14
- **Alebin mailan:** Iñigo Murua-Gorka Maizek (Gabiria) 18 - Badiola-Vianak (Zumarraga) 11
- **Infantil mailan:** Santiago-Pello Alberdik (Urretxu) 18 - Ormazabal-Aimar Alberdik (Urretxu) 7



Zaharkinak proiektua



Datorren maiatzaren 2an hasiko da fermin Leizaola, Arantzadi

Zientzia Elkarteko etnografi Saileko Zuzendaria Zaharkinak proiektua garatzen Zegaman. Udalaren eskaerari erantzunez herriko jubilatutalde bat izango du lagun Zegamako baserrietako tresneria garraiatu nahiz garbiketa lanak egiteko ere. Maiatzaren 18tik 26ra Pilotalekuan erakusketa jartzen ariuko dira Fermin Leizaolaren gidaritzapean eta maiatzaren 27an, eguerdiko 13:00etan izango dugu inaugurazio eguna. Erakusketa asteburutan irekita izango da eta asteen zehar bisita gidatuak egin ahal izango dira aurrez ordua eta eguna zehaztuz. Asteburutako txandetan ere parte hartzeko prest agertu dira jubilatutak; zein bada beraiek baino egokiago-

ak gaztetan eskuartean izan zituzten lanebesak zer diren, zein izen duten eta zertarako erabiltzen ziren beraiek baino? Eskertzekoa benetan, herriko jubilatuek eskainitako laguntza paregabea.

Aste Santuan Zegama ikusgai

Aste Santuan aurten Zegamara jende ugari gerturatu da. Udalak Informazio Gune bat jarri zuen Udaletxeko sarrean Zegamara zetozenek herriko Eliza, San Bartolome Ermita eta Marixular Ehungintza Tailerra ikusi eta azalpenak jasotzeko aukera izan zezaten. Horretarako, bai arte mailako azalpen eta turismoari Zegama eta eskualdeko informazioa emateko aditua

den pertsona bat izan dugu zerbitzu hau ematen, bere datuen arabera 80 pertsonen informazio zuzena jaso dute aurten Aste Santuan Zegamari buruz. Informazio gunea jarri den lehen urtea izateko datu esanguratsua da benetan.

Santa Kruz eguna

Datorren maiatzaren 3an, Santa Kruz Egunean, Olaberriko Santa Kruz Ermitan meza izango da, 19:00etan.

Herri Urrats Senperen

Maiatzaren 6an, Herri Urrats ospatuko da Senperen. Izene-matea: udaletxean edota liburategian. Epea: maiatzak 4,

ostirala. Prezioa: 700 pta. (Zegamarrek lehentasuna dute, hala eta guztiz ere tokirik sobratuko balitz behin epe bukatuta gero kanpotarrek ere autobusean joateko aukera izango dute).

Pintura ikastaroa

Pintura ikastaroa ere berehala martxan jartzeko asmoa dagoenez, izenematea maiatzaren 3 arte luzatu da eta bertan parte hartzeko asmoa duenak lehenbailehen eman beza izena Udaletxean. Telefonoa: 943 801351 (Eduerne).

Eduerne Albizu

Hitzaldiak

Maiatzean zehar bi hitzaldi interesgarri antolatu dira. Biak ere pil-pilean dauden gaiak baitira gai honetan:

Alde batetik "elikaduraren" gaia izango dugu, elikadura orekatua nola egin aztertuko delarik bertan.

Bestetik, "aftosa sukarra" eta "behi eroen" gaia landuko da. Gai hau ere, bai baserriar eta bai kontsumitzaileek ere kezkatuta dituela esan behar. Hona hemen hitzaldien egun eta orduak zehaztuta:

Maiatzak 7, astelehena, Kultur etxean, 19:00etan. Gaia: Oreakatuta jaten ikasi". Hizlaria: Ane Miren Uranga medikua.

Maiatzak 16, asteazkena: 20:00etan. Gaia: Aftosa sukarra eta behi eroak. Hizlaria: Juan Ramon Ibarbia albaitaria.



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

Ardirik gabeko artzain egunean balorazio ona

Nafarrerria dela eta ez zen ardi-aziendarik izan apirilaren 18an izandako artzain egunean. Dena den, urteko lehen peri berezi honetako balorazioa egiterako orduan baikor agertu dira antolatzaileak. Izan ere, eguraldi hotza izan bazen ere, jende dexente inguratu zen peri gunera, ohiko barazki postuez gain, bertako beste hainbat produktuz osatutako postuak ikusi asmoz. Horiek guztien artean gazta berria protagonista.

Ez zen ardirik pasa herri gunetik, ezta ahari erakusketarik egon ere. Ilê mozketarik ikusteko aukerarik ez zen izan. Baina gazta nola egiten den "majo" irakatsi zuten hainbatek. Herriko Elkaratek prestatuta, ardi eta arkume dastaketa ere izan zen. Hau guztia Garagartza Plazan izan zen ikusgai. Bitartean, Enparantza Nagusian ohiko barazki postuen artean lehiaketa izan zen eta bertan epaimahikoen iritziz Ibarako Lacasa Montesek ipinitako postuak zuen itxura onena. Bigarren saria Anoetako Josu Artolak jaso zuen eta hirugarrena, berriaz, Baliarraingo Mari Jesus Mujika eta Edurne Jauregik elkarbanatu zuten.

Era berean aurtengo gazta denboraldiari hasiera emanez ekitaldia burutu zen udaletxean bertan. Ohi bezala inguruko sukaldari onentsuenen presentziarik ez zen falta izan eta gazta ebaki eta dastatuaz Idiazabal Gaztaren denboraldia irekita geratu zen. Gazta ebaki zuen Aitor Elizegi bizkaitarra izan zen.

Aitor Calvillo



Unibertsitatea bertan

Mondragon Unibertsitatearen kanpus berria inauguratua dago jada. Goierri Lanbide Eskolaren ondoan egin berri den eraikinean emango dira klaseak eta 01-02 ikasturtean irekiko zaizkie ateak ikasle berriei. Guztira 200 ikaslerekin eman nahi zaio hasiera ikasturteari eta lau urteren buruan 500 izango direlako itxaropenak dituzte Unibertsitatekoek. Bertan Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketak eskainiko dira. Baduzu informazio gehiago 8-9. orrietan.

Udaberri Saria

Oiangü Pilota Elkarteko Andoni Berasategi eta Azeari Andonegik osatutako bikotea garaile izan zen apirilaren 18an Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokaturako Gipuzkoako Udaberri Sariko finalean. Pala motzarekin aritu ziren eta aurrez aurre Andoaingo Gazteleku taldeko Aizpurua eta Poncek osatutako bikotea izan zuten. Ez zen erraza izan aipatu finala. Dena den, Azearen sarea erabakigarria izan zen azken unean eta txapela Ordiziara ekarri zuten. Ez da hau Ordiziakoek Gipuzkoako Taldeen artean jokatzeko lehiaketa honetan lortzen duten lehen garaipena. Izan ere aurreko urteetan ere beste hiru garaipen lortuak zituzten, hirurak paletarekin ordea.

Eneko Barandiaran maila onean

Decathlon modalitatea ez da ohikoa gaur egungo atletismoan. Kirolari osatuentzat gordetako proba da berau eta oso gutxi dute hain proba gogorrean parte hartzeko adorea. Atletismoko 10 probatan hartu behar da parte, lasterketak, jaurtiketak, jauziak, denetik egin behar izaten da. Proba guztietan egindako lanaren arabera puntuaketa orokorra lortzen da.

Bada hain proba gogorrean Euskadiko txapeldunordea da Txindoki Atletismo Taldeko Eneko Barandiaran. Gasteizen jokaturako Euskadiko txapelketan maila ona erakutsi zuen ordiziarrak eta amaierate lehen postuan izan bazen ere, azken proban puntuazio baxua lortu eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Eneko junior mailako atleta izan arren helduen mailan ere titulu bera eskuratu du. Oraindik ikasten ari den atleta izaki ziur askotan aipatu beharko dugula oraidik hemendik aurrera Eneko Barandiaranen izena.



GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierri, 12
behea
ORDIZIA

943 88 44 00
943 88 12 58

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 **ORDIZIA**

Ardoaren munduan barrena

Mikel Zeberio adituaren eskutik

Datan, fetxan izan den aldaketa txiki bat gora-behera, Mikel Zeberio, ardoez asko dakien aditua eta El Viandar aldizkariko editorea dena, Ataunen izango dugu. Hasiera batean larunbat honetan, apirilaren 28an etortzekoa bazen ere, maiatzaren 5era aldatu behar izan du zita. Ardoa ezagutzeko kata arratsaldeko 4etan hasiko da eta iluntzeko 8ak arte luzatuko da, San Gregorio-k Pelotazale Kirol Elkartearen. Ekintza honen bidez ardoen mundua gehiago ezagutzeko aukera eskaini nahi da. Hori horrela izanik, edozein zaleturi zuzendutako deialdia da honakoa. Bertara joaten denak, ardo mota desberdinak aztertzeko parada izango du. Ardoaren berezitasunak, ikusmena, usaimena eta dastaketa, zer kopatan edan, ardo bakoitzari dagozkion tenperatura aproposak, nola gorde, janari desberdinak zer ardoz lagundu... hortaz guztiaz hitz egingo du adituak. Izan ere, Mikelek dioenez, Euskal Herrian pribilegiatuak gara, oso ardo ona dugulako eta munduko beste herrialde batzuekin konparazioan, prezio nahiko onean eros dezakegulako. New York-en esaterako. Hango kopa baten prezioan hemen bi ardo botila eros ditzakegu. Hala ere, Mikel kritikoa xamar ageri da. *"Euskaldunok asko dakigunaren ustea dugu eta bitartean nahiko ezjakinak gara ardo kontutan"*. Ezjakintasun hori, hein handi



batean, garai batetik datozen uste, ohitura eta topikoetan omen datza: *"geroz eta zaharrragoa ardoa, hobe"*; *"ura bezela edaten da ardo hau"* esan ohi da ona dela adierazteko... Ba ez. *"Gran Reserva bat ona izan daiteke edota txarra eta berdin urteko ardo bat"*. Ingalaterran adibidez, nahiz eta ardorik ez produzitu, hemen baino gehiago ulertzen omen dute ardoez. Ma-

San Isidro eguna 2001

Datorren maiatzaren 15ean ospatuko da San Isidro, baserri-tarren eguna. Urteroko usuarioari jarraituz, aurtengoan ere barazki lehiaketa eta gazta erakusketa antolatu ditu udalak. Hiru auzoetan txandaka ospatzen denez, aurtengoan San Gregoriori egokitu zaio. Goizeko 11etan emango zaio hasiera barazki eta gazta erakusketari, eta produktuok eguerdiko 2ak artean izango dira ikusgai. 12etako mezaren ostean, 1etan ekingo zaio barazki lehiaketan parte hartu dutenen arteko sari banaketari. Lehenengo 6 hautatuei emango zaie saria. 12.000 pezeta lehenengoari, 10.000 bigarrenari, 8.000 hirugarren sarituari eta 6.000, 4.000 eta 2.000 pezeta 4, 5 eta 6. sarituei. Bestalde, ziza sari berezia eramaten duenari 8.000 pezeta egokituko zaizkio. Egunari amaiera emateko bazkaria izango da sari banaketaren ondoren. Bai barazki lehiaketan zein gazta erakusketan parte hartzeko herritarra izatea beharrezkoa izango da. Barazkiak, norberarenak eta herriko lurretan haziak izan beharko dira. Gutxienez 5 barazki mota aurkeztea beharrezkoa izango da lehiaketan parte hartu ahal izateko.

Barazki eta gazta gain, artzantzarekin loturiko lanbideak ikusteko aukera ere izango du bertaratzen den orok. Ikusgai izango baitira gazta nola egiten den, ardiei ile mozketan...

dril eta Bartzelonan ere maila handia dagoela dio Mikelek. Izan ere, usaimena, ikusmena eta dastaketa. Hiru ezaugarri horiek dira garrantzitsuak ardoak katatzeko garaian. Kata egokiro eginez gero, ardoaren sorlekua atzeman behar omen da, zer klima izan duen, mahasti mota eta zaindu duen bodegeroa ere bai. *"Ardoa kopa egokian zerbitzatzea ere ezinbestekoa da"* dio aditu honek. Izan ere, *"dastaketa, kristal eta formaren arabera aldatu egiten da"*.

Mikelentzat ere okasio berezia dela esan genezake. Bilbon bizi bada ere, ataunadratzat bait du bere burua Mikel Zeberio. Pelotazale K.E., Aizkoate K.E., Haitzarri K.E., Oargi-Troskaeta K.E., Atsedentoki, Artadi eta Ataungo Udalak antolatu duten ardo ezagutzeko kata honetara joan nahi duen orok, Udaletxean zein aipatu elkarteetako arduradunei eman behar die izena apirilaren 28a baino lehen. Sarrera 1.000 pezeta izango da.

Agurtzane Bikuña

Labur-labur

- Joan den astelehenean Liburu Eguna zela eta, **Joxerra Gartzia** idazle eta kazetari famatuaren hitz-jario oparoaz gozatzeko aukera izan genuen Udal liburutegian. Bestalde, irakurketa sustatu asmoz, azoka antolatu dute liburutegian. Liburu interesgarriak modu onean eskuratu nahi dituzuenok, aste honen bukaerara izango duzue aukera liburutegian. Bestalde, **Internet** zerbitzua erabiltzeko aukera herritarren eskura jarriko da datorren hiletik aurrera.
- Apirilaren 23an baita ere, gori-gorian dagoen gaiari buruzko **hitzaldia** eskeini zen Atsedentoki Elkartearen: Euroari buruzkoa hain zuzen. Guztion interesa sorrazten duen gai honi buruzko xehetasunak datorren zenbakian eman ahal izango dizkizuegu.
- Atsedentoki elkarteak urtero antolatzen dituen jokoetan aurtan ere izan den partaidetza zabala eskertu nahi luke. Ia 300 lagun izan baitira toka, zapo eta mus txapelketetan parte hartu dutenak. Baita ere, elkarteak bere esker ona azaldu nahi lieke udala eta herriko laguntzaile eta babesle guztiei.

Gaztaren 4. eguna maiatzaren 6an

Maiatzeko lehendabiziko igandean ospatuko da aurten ere Gaztaren Eguna. Herritarrei eta bisitan etortzen direnei, Euskal Herrian egiten den gazta dastatzera ematea du helburu, besteak beste, jai honek. Ia 400 kilo gazta banatuko dira horretarako. Euskal Herri osoko 22 artzain etorriko dira Idiazabala. Artzainen postuak futbitoan egongo dira jarrita, eta iazko moduan zonaldeka banatuta egongo dira. Aurten, lehendabiziko aldiz, artzainen postuetara gerturatzaren diren bisitariek gaztarik onena eta posturik politena zein den aukeratzeko modua izango dute. Horretarako, futbito sarreran jarritako sistemaren bidez botoa eman ahal izango da.

Aho eria edo sukar aftosak ere izango du eragina Gaztaren egunean. Ardi mozte erakusketa bertan behera utzi beharra izan dute. Horren lekuan, ardiari moztutako artilearekin zein lan egiten den erakutsiko dute Luis Katarain herritarrek eta Zegamatik etorritako bi artzainek. Artzantzan erabilitako beste animalia batzuk, zakurrak ikusteko aukera ere izango da. Mastin arrazakoak eta Euskal artzain txakurrak izango baitira.

Gaztaz gain, bestelako jaki eta edariak dastatu eta erosi ahal izango dira. 17 postu jarriko dituzte plazan. Bertan, gazta eta mamia nola egiten den ere erakutsiko da. Laugarren edizio honetan, hiru la-



Arg.: Guillermo Urrestarazu.

gunei egingo zaie omenaldia. Agustín eta Inazio Imaz Urbizu baserriko anaiei, eta Nikolas Seguiolari.

Astean zehar

Astean zehar egingo diren gazta eta ardo dastaketetan parte hartu ahal izateko, Udaltxean eman behar da izena apirilaren 27rako (ostirala). Gehienez 30na lagunek parte hartu ahal izango dute ekitaldi horietan.

Larunbatean, Atxurbide elkartearen egingo den afarirako txartelak herriko taberne-

tan daude salgai, maiatzaren 2a bitartean.

Urrezko Aizkora

Gazta Eguneako egitaraua osatzeko, igande arratsaldean Urrezko Aizkora txapelketako final aurrekoetako bat jokatuko da Igarondo pilotalekuan. Bertan Olasagasti, eta asteburu honetan sailkatuko den beste aizkolaria bat arituko dira lehian. Ordua oraindik ere erabaki gabe dago, ekitaldia ETB-k emango baitu.

Xabier Urteaga

Elkarte berria martxan

Idiazabalen elkarte edo soziedade berria martxan jartzeko lanak aurreratuta daude. Ekimenaren bultzatzaileek, 40 bazkide nahi zituzten proiektua abian jartzeko, kronika hau idazterakoan 39 lagun zeuden izena emanda.

Elkarte berria sortzeko ideia, "Idiazabalgo gazteek herriko elkarteetan sartzeko ditugun arazoak ikusita bururatu zitzaigun" Jon Mujika ekimenaren arduradunak

azaldu duenez. "Elkarteetan sartzeko zerrenda luzeak daude. Neure burutik hasita, horietako batean sartzeko aukera gutxi zegoela ikusten nuen". Hasieran, elkarte berriko bazkideak herriko gazteak izatea pentsatu zuten antolatzaileek. Bazkideko milioi bat jartzea aurreikusi zen eta "horrek gazte asko atzera egin arazi zituen. Gehienak maileguren bat ordaintzen ari baitira" Jon Mujikaren esanetan.

Bazkideak, ala ere, espero ez zuten lekutik etorri zaiz-

kie. Axari elkartearen etorkizuna zalantzan ikusi du bertako bazkide batek baino gehiagok. Soziedade hori dagoen erakinean eta inguruko etxeetan berrikuntza lanak egin behar dituzte eta elkartearekin zer gertatuko den argitzeko dago. Hori dela eta, Axariko bazkide askok, elkarte berrian izena ematea erabaki dute.

Elkarte berria, Pilarrenearen ondoan egin duten etxe berriaren beheko lokaletan egongo da jarrita. 135 metro karratu izango ditu. Norbai-

tek xehetasun gehiago nahi badu, 626310578 telefonora deitu dezake. Leku gehienak beteta dauden arren, hutsuneren bat sortu bailiteke.

Euroa

Euroari buruzko hitzaldia emango dute Kutxako ordezkariak maiatzaren 7an (astelehena) Pilarreneako ganbaran. Txanpon berriari buruzko xehetasunak jakin nahi dituenak, bi aukera izango ditu, bata arratsaldeko hiruretan eta bestea zazpian (hitzaldi bera izango da).

IPARRAGIRRE ANAIK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



✓ Aholkularitza juridikoa

✓ Entrepresa zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92

Faxa: 943 88 36 33

Kale Nagusia, 2

BEASAIN

San Joanak

Udalak, eskola neska-mutikoei zein musika talde dituzten gustokoak galdetegia pasa eta 40ren bat gazteren erantzunak jasoak dira.

Bestalde, pasa den apirilaren 20an egin zen festak antolatzeke lehen bilera. Bertan, besteak beste, ekainaren 15, 16, 17, 22, 23, 24 eta 25ean festa egunak izatea erabaki zen. Hurrengo bilera maiatzaren 3an izango da eta bertara elkarte, talde eta erakunde guztiak berriro deituko dira.

Herri arteko pelota

Apirilaren 29an hasiko da Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketa. Urtero bezala, aurtengoan ere parte hartuko du Segurak. Kadeteetan, Mikel Garziandiak eta Asier Ize-tak jokatu dute. Jubeniletan, Enetz Olanok eta Gari-koitz Oiarbidek eta afizionatuetan Egoitz Berasategi, Inge Olano eta Ibon Etxeberría daude.

Joxemari Telleriaren eskultura Arabarren plazan

Arabarren plazan, jatorrizko lekuan mantendu den pozaderari, udalak eskatuta, Joxemari Telleriak diseinatutako metalezko eskultura erantsi berria zaio. Joxemari eskultura arloan zen-



Arg.: Rafael Berasategi

duan dauden 20ren bat baratzak ureztatzeko erabili ohi dira.

bait saiakera eginak badi-tu ere, publikoan jarri duen lehena da. Burdinezko irudia, pozaderatik ura jaso ahal izateko txirrika da. Bere gainean, forma abstraktuan egindako 'S'ak, Segura irudikatu nahi du.

Beste 31 pozadera

Kale Nagusian 9, erdiko kalean 3, baztar kalean 6 eta herri alboan 13 dira herriko kaskoan dauden pozaderak. Garai batean, batez ere, etxeko beharretarako erabiltzen baziren, gaur egun funtzionamen-

Jokin Izagirre txapeldunorde

Bolan, Gipuzkoako erregularitate txapelketan, 11 jardunaldiren ondoren, Jokin 2. postuan geratu da, Antonio Alustiza irabazlearengandik birla batera. 6. postuan Antonio Agirre eta 9. enean Xepi-ño Agirre sailkatu dira. Hiru goierritar hauek Euskadiko txapelketarako sailkatu dira.

Goierriko finala Seguran.

Goierriko bola txapelketaren finala Segurako Txoritegi bolatokian jokatu da apirilaren 28an, goizez 11,30etatik 12,30etara eta arratsaldean 4,30etatik 5,30etara. Gauean, afaria eta sari banaketak izango dira Txoritegi elkartearen. Txapelketa honetan, Xepiño Agirre 2. postuan dago, Antonio Alustiza, lehenarengandik 4 birlara.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Preferentea:** Mundarro 5 - 1 Segura.

Asteburuan etxean: zapatua: Aizkorri - Aldapetarrak (kadeteak), 13:00etan; Segura - Intxurre (jubenilak), 16:00etan. **Jaie:** Aizkorri - Elgoibar (jubenilak), 11:00etan.

Joseba Telleria

Santakruzak beheko barrioan



Maiatzak 3, Santa Kruz eguna: Meza eta mokadutxoa: iluntzean meza izango da Beheko Kurutzan, urte barruan auzoan hildakoen alde. Ondoren, udalaren la-

guntzaz, mokadutxoa eskainiko zaie bertaratzen direnei. **Toka txapelketa.** Mokadutxoaren garaian hasita, herritarren arteko urteroko toka txapelketa jokatu da Jermanene aurrean. Trofeo bana izango da lehen emakumezko eta lehen gizonezkoentzat. **Auzoa afaria:** 21:00etan auzotarrak urteroko afarian elkartuko dira. Izenak aurrez eman behar dira Antonkalenen edo Jermanenen.

Maiatzak 6, XXVII. Gurutze Deunaren txirrindulari proba. Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta eta Jabier Ormazabalaren oroimenez, jubenil mailako proba korrituko da. Goizeko 9,30etan Jermanenetik irtenda, 11:55 aldera amaituko da karrera leku berean. Helmuga baino 4 km lehenago Liernia igo beharko dute Ormaiztegi aldetik.



Euskadiko Dantza Txapelketaren hasieretako edizioa, frontoi zaharrean.

Dantza txapelketari buruzko liburusk

Euskadiko dantza sueltoko txapelketa antolatzen deneko 25. urteurrena ospatuko da aurtengo ekainean. Hori dela eta, udalaren ekimenez, 25 urte hauetan gertatutakoak jasoko dituen liburusk kaleratuko da ekainerako. Lana gauzatzeko informazioa jasotzen eta argazkiak biltzen Lierni Elorza ari da.

antzerkia

BEASAIN:

Apirilak 27, Yllana taldearen 'Hipo' lana, Usurbe Antzokian, Antzerki Garaiaeren barruan. Sarrera 1.500 pezeta.

musika

IDIAZABAL:

Maiatzak 6, Erramun Martikorena, 12:30ean, plazan.

LARRAITZ:

Maiatzak 1, Daniel Xalbador eta Gerard Ihdoi kantari zuberotarrak, 11:00etan eta 12:30ean.

ZALDIBIA:

Apirilak 27, Juan Karlos Irizar eta Kiñu taldea, antzokian, 22:30ean. Sarrera 300 pezeta.

Maiatzak 5, La Polla, Skallariak, Zama eta Txapelpunk, pilotalekuan, 22:30ean. Sarrera 1.500 pezeta.

bertsoak

LARRAITZ:

Maiatzak 1, Begiristain eta Gorostidi, 12:00etan.

LAZKAO:

Apirilak 28, Sebastian Lizaso eta Mañukorta bertsolariak, 12:30ean.

Maiatzak 6, Joxe Agirre eta Imanol Lazkano, Lazkao-mendin, 13:00etan eta 18:30ean.

erakusketak

BEASAIN:

Maiatzaren 4ra arte, Gino-ren argazkiak eta olerkiak, Aterpe tabernan.

ZINEA

BEASAIN:

'¿En que piensan las mujeres?'

Larunbata 28: 19:30 - 22:15

Igandea 29: 16:45 - 19:30 - 22:15

Astelehena 30: 22:15.

Asteartea 1: 16:45 - 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Billy Elliot'.

Ostirala 27: 22:15.

Larunbata 28: 19:30 - 22:15

Igandea 29: 19:30 - 22:15

'La dama y el vagabundo'.

Igandea 29: 16:45.

'No te fallaré'.

Astelehena 30: 22:15.

Asteartea 1: 19:30 - 22:15.

Goieniz

Maiatzak 8, 'La tentación vive arriba', 21:30ean, Usurbe Antzokian.

'La tentación vive arriba'
Billy Wilder
(EEBB, 1955).

Azken zazpi urteetan, Richard Shermanek ez du egun bakar bat ere pasa bere emaztea eta semea ikusi gabe. Udako sargoriarekin batera helduko zaio aukera aproposa eta, ezustean, goiko pisuan bizi den emakume paregabe eder batek zirikatu du...

ORDIZIA:

Maiatzaren 18ra arte, Jean-Luc Labat artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak:
Apirilak 29: Lizarrusti-Lareo-Zaldibia.

'Barniz eta argizari naturalak eta ez toxikoak' ikastaroa

Barniz eta argizari naturalak eta ez toxikoak nola egin eta beraien erabilpenaz 30 orduko ikastaro trinkoa antolatu du Gabiriako Amalur egur artisautza tailerrak. Maiatzaren 17tik 20ra edo uztailaren 12tik 15era bitartean izango da ikastaroa. Izena emateko telefonoa, 943161476 daukazue. Posta elektronikoa ere zuen eskura dago: amalurzura@euskalnet.net.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Apirilak 28-29: Jauregi
(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.

Apirilak 28-29: Jauregi
(Santa Maria kalea, 2 - Ordizia). 943 160949.



Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- * Unibertsitate-maila
- * Batxilergoa
- * DBH
- * ...

ESKOLA LAGUNTZA

- * Maila eta arlo guztietan

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmena - idazmena
- * Kalkulua, logika
- * Testu lanketa

Orain ZERBITZU BERRIA:
IRAKASLEA zure ETXEAN!
Informa zaitetz!

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA



Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

Etxebizitzak

salgai

➡ Ezkio-Itsason etxe adosatua salgai. 2 solairu (116 m²), garaia, estudioa (63 m²), terraza eta lorategia. 943725914 - 943 037609.

➡ Idiazabalen etxebizitza salgai. 70 m²koa. Berria, ekipatua, 2 logelakoa. 16.500.000 pezeta. 627869700.

➡ Legorretan etxebizitza salgai. Ganbararekin. Dena berritua. 943806404.

errentan

➡ Beasaingo pisu konpartitu batean logela alokatzen da. 20:00etatik aurrera deitu. 943027799 - 656761030.

Bestelakoak

salgai

➡ Estrenatu gabeko 14 pulgadako telebista salgai. 639402594.

➡ Kanpin denda salgai. 2 logela eta abantzearekin. 943191854,

➡ Gurdi-denda salgai, sukaldea eta hozkailuarekin. Egoera onean. 175.000 pezetan. 943889172,

➡ Emakumezkoen mendiko txirrindua salgai. 943191854,

➡ 5 lanpara salgai. 943191854,

➡ Besaulkiak (siloiak) salgai. Bata, ohea egiten dena, 3 plazakoa eta beste biak, banakakoak. 50.000 pezetan. 19:30etik aurrera deitu. 943161355.

➡ Aspes hozgailua salgai. 1,12 m.ko altu-

ra, 0,55 m.ko zabalera, 0,55 m.ko sakonera. 6 hilabetez erabilia. 20.000 pezeta. 943886033. Joxe.


Ibilgailuak

salgai

➡ Opel Kadett autoa salgai. Beltza. Ondo zaindua. SS-AC. Prezio interesgarria. 606061165. (Joseba).

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

UNTXUNDEI

garajea



OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Nagusi

Optika

Eguzkitarako betaurrekoak
Ukipen-lente konbentzionalak
Erabili eta botatzeko ukipen-lenteak
Osakidetzarekin itzarmenari atxikiak

Udaberri-udako eskaintza
graduaturako eguztitarako
betaurrekoak 8.800 pta

Helbide berria: Nagusia, 10
☎ 943 161 999 BEASAIN



Aukera ezazu zurea, guztiona...
Euskal Eskola Publikoa

URDANETA-OIANGUREN

B. H. INSTITUTUA

☎ 943 88 08 62 - 943 88 08 66

- Kalitatezko heziketa, euskalduna eta dohainik.
- Eskaintza osoa herrian bertan 3 eraikuntzetan banatuta (2 urteik 18ra arte).
- batxileretan aukera zabala: bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Humanitateak eta Giza Zientziak, Natur eta Osasun Zientziak.
- Goi mailako heziketa zikloa: Haur Hezkuntzaren teknikaria (2.000 ordu)
- Goi mailako ikasketetarako bide egokiak.
- Ikasleak etorkizunean izan ditzaketan interes eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

Izen emateko epea: Maiatzaren 2tik 11ra

➔ Renault 9-a salgai.
SS-W. Oso merke.
943723504.

➔ Transporter furgoneta salgai: 2,4, Combi, diesela eta kristalduna. Aire egokitua eta erremolkeko engantxea ditu.
943651671 - 666615766.

➔ Honda VFR750 motorra salgai. Ondo zaindua. 350.000 pezetan. 943674920. 19:30etik aurrera deitu.

➔ Cady motorra salgai. Beltza. Egoera onean. 20.000 pezetan. 943162510. Asteburuetan deitu.

➔ Mendi bizikleta, Orbea Sherpa, salgai. 25.000 pezetan. 943886532. Beñat. Arratsaldeko 7etatik aurrera deitu.

lana

eskaerak

➔ Ormaiztegin jate-txe txiki baterako zerbitzaria behar da, txandaka, bazkariak edo afariak ematen lan egiteko. Asteburu osoak libre, hileko bi larunbat izan ezik Ordu-tegi ona. 943882893.

➔ Lazkaoko Ansoategi taberna errentan hartzeko aukera dago. Lazkaoko 88 posta-kutxara bidali datuak, maiatzak 5 baino lehenago.

➔ Ormaiztegiko jate-txe txiki baterako larunbat gauetan garbiketari lanetan lagutzeko pertsona bat behar da. 943882893.

➔ Zaldibian asteburuetarako zerbitzaria behar da. Euskalduna. Ahal dela esperientziaduna. 943880044.

➔ Neska edo emakume bat behar da Oلابerrian (kaskoan)

umeak zaindu eta etxeko 1 anak egiteko. 627411766 (19:00etatik aurrera deitu).

➔ Neska bat behar da tabernan lan egiteko. 943886243.

➔ Emakume edo neska euskaldun bat behar da Ordizian ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943161273, 19:00etatik aurrera deitu.

➔ Miami tabernan asteburuetan lan egiteko neska bat behar da.

➔ Emakume euskalduna behar da goize-tan umea eskolara eramane eta etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera 943161874.

eskaintzak

➔ Tabernan lan egiteko neska esperientziaduna eskaintzen da. Euskalduna. 943027105 - 616730421. Yoli.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritzak

MANDRINATZAILE OFIZIALA
Billabonan Erref. 50537/1

TOPOGRAFIAN PRAKTIKARIA
Tolosan. Erref. 49871/2

METALGINTZAKO PEOIA
Idiazabal. Erref. 50024/2

ADMINISTRARI KOMERTZIALA
Donostialdean. Erref. 49724/4

2 INGENERU
Arabako Lautadan. Erref. 49898/2

PRODUCT MANAGER
Donostialdean. Erref. 49978/1

KANPO MERKATARITZA TEKNIKARIA
Donostian. Erref. 50519/4

ENKOFRATZAILE OFIZIALA
Donostialdean. Erref. 50574/2

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

iñAUSTi



KARROZERIA

N-1 errepedea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 **OLABERRIA**

TOKI-ALAI Jatetxea

Jaunartzeak - Bataioak - Ospakizunak
Menuak eta Karta zerbitzua

Aramako Plaza

Tel.: 943 888 953

ARAMA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Josu Sarriegi Alaveseko jokalaria:

"1. mailan jokatu dut eta ametsak bete ditut"

Josu Sarriegi 22 urteko lazkaotarra Alaveseko 2. taldeko jokalaria da. Lehen taldeko Karmonaren lesioa zela eta 1. mailan jokatzeko hasi zen eta talde nagusiarekin ari da entrenatzen. Lazkaon hasi zen futboleko, 19 urterekin Beasaina joan zen, han urtebete egin eta azken bi urteak Alaveseko 2. taldean daramatza.

- Zergatik Alavesera eta ez Errealera?

- Zailagoa da, hemen jokalaria gehiago dago eta askok kanpora joan beharra izaten dugu. Alaveseko 2. taldean arabarrak baino gehiago gara kanpokoak. Gainera oso gustura nago, gauzak ezin hobeto ari zaizkit ateratzen, ezin gusturago nago.

- Zein da Alaves dagoen tokian egoteko sekretua?

- Askotan zortea izaten da. Jokalari onak daude eta umiltasun handia dago talde barruan. Jende langilea dago, umila eta borrokalaria. Hori denakin gauzak ondo ateratzen ari dira. Diruak agintzen duenez agian orain hainbat jokalaria beste taldeetara joan daitezke. Asmatzen denean hori gertatzen da.

- Uefako finalerako sailkatuta zaudete. Nola bizi duzue hori jokariok?

- Imagina dezakezu. Uefako final batera ez da edozein iristen. Alaves bezalako talde bat horra iristea ikaragarria da. Jokalariok ere inoiz maila horretan jokatu gabe gaude eta oso gustura bizi da hau dena.

- Zuk pertsonalki nola bizi duzu?

- Ba oraindik gusturago. 2. taldean egon eta beti duzu ilusioa, 1. taldean jokatzeko itxaropena. Iritsi zait igotzeko eguna eta momenturik onenean gainera. Uefan jokatzeko eta oso gustura.

- Salto handia izan al da 2.B mailatik 1. mailara?

- Nire postuan, zentrala izanik, ez dago hainbeste ezberdintasun. Baloia ez dago



hainbeste erabili beharrik. Gehienbat mugimendu kon-tua da eta horiek oso antze-koak dira maila batean edo bestean. Neuretzat posturik errazena da, ondo posizio-natuz gero lan erdia eginda da-go. Lehenengo mailako joka-larien kaltitatea askoz ere handiagoa da, baina, batez ere erritmoa. Partidaren lehen 20 minutuetan oso bizkor jokatzeko da, amaitezinak izaten dira, ito egiten zara.

- Aurten partidu batzuk jokatu dituzu, aurrera begira ze itxaropen duzu?

- Igotzea zaila da baina hor

mantentzea askoz ere zailagoa. Gurekin 2. taldean dagoen kide bat iaz lehen taldearekin entrenatzen aritu zen, 5 partidu ere jokatu zituen eta aurten ez du talde nagusiarekin entrenatu ere egin-ten. Agian aurten zentralen batek alde egingo du, baina bere ordez beste bi ekartzen dituzte eta leku hori izatea ez da betere erraza. Aurre-denboraldia egingo dugu eta ikusiko dugu zer gertatzen den.

- Jokalari bezala zein da zure ametsa?

- Ez dakit. Ni futboleko gus-tatzen zitzaidalako hasi nin-



NEGUERUELA
BITXITEGIA
ERLOJUTEGIA

☎ 943 16 08 30
Hirigoien, 12 LAZKAO

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA
Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

AZKARATE IBABE INDUSTRIALDEA
☎ 943 88 81 01
LAZKAO



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Festa onak pasa!
Pello Barandiaran
☎ 943 16 13 61
Hirigoien, 18
LAZKAO

tzen, ez bizia hortik ateratzeko. Noski, fuboletik bizitzen banaiz, askoz ere hobeto. Ni Beasainen kontentu nengoen, gero talde handi baten filialera eramaten zaituzte eta oraindik gusturago, gero 1. mailan jokatu dut eta ametsak bete ditut. Hor jarraitzen badut? Ba askoz ere hobeto.

- Errealaren kontra Anoetan jokotuta ere amets bat beteko zenuen, ezta?

- Hori izugarrikoa izan zen. Hainbeste jenderen aurrean jokatzeko, familia eta lagunak hor begira izatea...

- Baina Errealean jokotuta gustorago?

- Nahi, nahiago nuke, nire betiko taldea izan da. Baina niri Alavesek eman dit aukera eta Alaveseko jokalaria naiz, oso gustura nago gainera.

- Zer moduz ikusten duzu euskal futbola?

- Nik ondo ikusten dut. Uste dut beti egon dela ondo. Euskal jokalaria pila bat daude talde askotan, bai lehenengo mailan, bai bigarrenen eta 2.B mailan ere bai. Gero talde mailan Alaves dabil ondo, baina euskaldun gutxiakin. Orain mugitzen diren diru kopuruekin zaila da Athleticen filosofiarekin hor manten-

tzea. Gutxienez 4 euskal talde daude 1. mailan.

- Harrobiko jokalariontzat garai txarrak al dira?

- Ez da erraza. Alavesek 3-4 urteetan igoera handia eman du, lehen 2. mailan zegoen eta 2. taldea preferenten. Ez dauka Errealak edo Athletic-ek duen egiturarik. Hori piskanaka-piskanaka joan behar da harrobia zaindu eta bultzatzen. Taldearen egitura aldetik beste taldeak askoz ere garatuagoak daude eta lan asko dago egiteko. 3 urte bakarrik daramatza 1. mailan eta hori nabari da.

- Zure bizitza asko aldatu al da?

- Ez, Gazteizen berdin-berdin bizi naiz. Orain goizetan entrenatzen dut eta ezin naiz unibertsitatera joan. Ingeniaritza 2. mailan ari nintzen ikasten baina orain pixka bat alde batera utzita dut. Noiz-behinka elkarriketa batzuk eman behar, horretan aldatu da.

- Korrikako 1. kilometroan leku-koa eramatea ere tokatu zitzaizun.

- Alavesen euskaraz dakienik ez dagoenez, beti niri tokatzen zaizkit horrelakoak. Baina oraindik lotsa ematen dit hainbeste jenderen aurrean egotea.

- San Prudentzio, Gasteizen ala Lazkaon?

- Nik Lazkaon. Gainera kasualitatez aste horretan ostiralean jokatu dugu. Telebistaz ematen dituzten 2.B mailako partida jokatu eta txistu batean Lazkaora etorriko naiz. Egun pare batean festetan ibili ahal izango dut.

- Zein jokalaria markatuko zenuke gustora?

- Askok, adibidez, Urzaiz derbi batean. Jokalaria gogorak markatzea beti izaten da gustagarri.

- Zein izan da zure idoloa?

- Ez dut idolo handirik. Txikitatik, 'Txiki' Begiristain gustatu izan zait. Seguran jokatzeko zurenean gure aita izan zen bere entrenatzailea eta beti jarraitu izan dut.

- Nor da zure jarraitzailearik sutuena?

- Nik uste dut aita dela, alde guztietatik bueltara ibiltzen da ni jokatzeko ikusteko.

- Ufako finala jokatzera edo ikustera joango al zara?

- Jokatzeko ez baina ikustera joatea espero dut. Denok eramango gaituela pentsatzen dut. Hainbeste jendekin finala ikustea ikaragarria izan beharra dago. Jokatzeko kasualitate handia behar da, zigorrak, lesioak edo.

- Finalerako zein talde zenuen nahiago?

- Nik Liverpool. Futbol ingelesa eta harmailetako giroa eta animatzeko era niri ikaragarri gustatzen zaizkit.


- Gasteizko bi talde, Alaves eta Vasconia, Europako finalean daude eta bietan lazkaotar bana zaudete: zu eta Joxean Kerejeta.

- Igoal horregatik izango da (dio irribarrez). Askotan zorte kontua izaten da. Gero zulo txar bat pasatzen hasten zara eta hortik ateratzea ez da batere erraza izaten.



*Arrautza
jarriberri
ezin hobeak*

© 943 16 09 71 Elosegi, 25
LAZKAO



Madalena, 2 Tfnoa.: 943 88 19 95 **LAZKAO**

HORNITEGI

**LANABES ETA
HORNIGAIK**

SUKALDE TRESNERIA



AUTO ESKOLA

Ondo pasa festak!

TELEFONOA:
943 88 72 99 **Lazkao**



Lazkaoko emakumezkoak 1959-60 ikasturtean

1. Inmakulada Albisu, 2. Teresita Irastorza, 3. Filo Muruamendiraz, 4. Ramos Perez, 5. Itziar Murua, 6. Tere Docampo, 7. M. Jesus Garmendia, 8. Inmakulada Agirre, 9. M. Kruz Insausti, 10. Amaia Naldaiz, 11. Rosarito Insausti, 12. Sinda Gallina, 13. Gema Ibarburu, 14. Ana M^a Igarzabal, 15. Dioni Rodriguez, 16. Ana M^a Vaquero, 17. Itziar Imaz, 18. Emeren Mendia, 19. M^a Karmen Cuñado, 20. ezezaguna, 21. ezezaguna, 22. ezezaguna, 23. Begoña Mujika, 24. Mertxe Goiburua, 25. M^a

Sol Irizar, 26. M^a Jose Goenaga, 27. Sara Perez, 28. Mertxe Arrizabalaga, 29. Belen Cuñado, 30. Arantxa Leunda, 31. Juani Garmendia, 32. Ines Matxain, 33. M^a Karmen Naldaiz, 34. Koro Kerejeta, 35. M^a Karmen Iriarte, 36. Visi Ribero, 37. ezezaguna, 38. Belen Arkarazo, 39. Ana Belen Ibarlaburu, 40. ezezaguna, 41. M^a Jesus Borde, 42. M^a Karmen Garcia, 43. Arantxa Zubeldia, 44. Mila Aldasoro, 45. M^a Luisa Cabezas, 46. Begoña Begiristain, 47. Trini Asurabarrena, 48. Maria Ballesteros, 49. Arantxa Aldasoro, 50. Lutxi, 51. Isabel Vaquero, 52. M^a Karmen Iztueta, 53. M^a Jesus Asurabarrena, 54. M^a Jose Alcantara eta 55. Rosa M^a Cerda.



GERRIKO GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA
☎ 943 88 65 00 ☎ 943 16 02 82
LIBURUDENDA KULTUR ELKARTEA
OSTATUA TXOKOA
Geurean geure kultura!
Goierriren bihotzean, GERRIKO

GAUR
KARROZATEGIA
Auto konponketa - margoketa
Festak ondo pasa!
Mendizabal baserria
☎ 943 88 86 09 **LAZKAO**

Ixiar

GOZOTEGIA
OKINDEGIA

Festak ondo pasa!

Hirigoien 20
Tel.: 943 88 11 54
LAZKAO

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



OKINDEGIA
GARONA

K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

**KEMEN ZENTRUan osasuna zaintzeaz gian,
zure kirol errendimendua hobetzen dugu.**

San Prudentzio
jai zoiontsuak
denoi

Mediku azterketak eta
esfortzu frogak

Argaltze dietak,
kirol dietak
eta aholkuak

Entrenamendu egokituak

Masajeak eta
manipulazioak




Kemen
kirol osasun zerbitzuak

Elozei, 14 - 1. ezk
LAZKAO

Tel.: 943 16 22 26
Faxa: 943 16 22 27

Eraikuntzako egurrezko materiala eskuragarri: habeak, solibak, tarima...



**PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA**



BERTAN S.L.
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR[®] TRATAMENDUA EGURRARENTZAT


**OHOL ETA ALTZARIEN
TRATAMENDUA**



Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

Tel. /Faxa: 943 163 102




GOIERRI LANBIDE ESKOLA

bulegoa@goierrieskola.org
www.goierrieskola.hezitek.net

24 Posta Kutxa
☎ 943 88 00 62 / 66
Faxa: 943 88 83 51
ORDIZIA

ZATOZ BATXILERRETIK

INGENIARITZARAINO!



2001/2002 IKASTURTERAKO GOIERRI LANBIDE ESKOLAREN ESKAINTZA

BATXILERGOAK

- TEKNOLOGIA BATXILERGOA
 - INGENIARITZARA BIDERATUA
 - GOI ZIKLOETARA BIDERATUA

ERDI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- MEKANIZATUA
- GALDARATEGI- SOLDAKETA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETA

- ADMINISTRARITZA ETA FINANTZAK
- PROIEKTU MEKANIKOEN GARAPENA
- MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA
- METAL ERAIKUNTZAK
- INDUSTRIAL EKIPOEN MANTENIMENDUA
- ERREGULAZIO ETA KONTROL SISTEMA AUTOMATIKOAK
- TELEKOMUNIKAZIOAK

IZEN EMATEA:

BATXILERGOA eta
LANBIDE HEZIKETA:
Maiatzaren 2tik 11ra

Ikastetxeko bulegoetan
goiz eta arratsaldez

GUZTI HAU 'GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA' FUNDAZIOAREN BABESEAN,
BAILARAKO UDAL ETA ENPRESEN PARTAIDETZAREKIN.

GAINERA ZERBITZU OSAGARRI HAUEK IKASLEEN ESKURA IZANGO DIRA:
GOIKERRI (Zerbitzu Teknologikoa)
IKASLAN (Lan Praktiken Tailerrak)
LAN BOL TSA

HEZIKETA
TEKNIKOKO
ELKARTEA
HETEL